



Lehiaren
Euskal Agintaritza
Autoridad Vasca
de la Competencia

EBAZPENA (05/2012 espedientea, PINOSOLO LEHIAKETA)

Bilbo, 2013ko maiatzaren 21a

Lehiaren Euskal Kontseilua

María Pilar Canedo Arrillaga andrea, lehendakaria

Natividad Goñi Urriza andrea, kidea

Rafael Iturriaga Nieva jauna, kidea

Idazkaria: Ibon Álvarez Casado jauna

EBAZPENAREN LABURPENA

I. AURREKARIAK.....	2
1. Salaketa.....	2
2. Gertakarien harira Leioako Udalak egindako jardunak.	4
3. Prozedura izapidetzea.	6
II. FROGATUTAKO GERTAERAK.....	11
1. Enpresak.....	11
2. Frogatutako gertaeren kontakizun kronologikoa.	13
III. ZUZENBIDEKO OINARRIAK.....	21
1. A. Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiaren eta Lehiaren Euskal Agintaritzaren arteko trantsizioa	21
2. AROS enpresak eskatutako bista.	21
3. DGM salatzailea	22
4. Garrantzizko merkatuari buruzko azterketa	22
5. Gertaeren kalifikazioa	27
A. Jokabideak Lehia Defendatzeko Legearen 1.1 artikuluekin lotzea. ...	27
B. interes publikoari eragiten dion lehia desleiala.	48
C. Arau-haustea.	62
6. Inplikazioa arau-hausteetan.....	63
A. PUJOL	63
B. VIUDA DE SAINZ	64
C. AROS eta ARCAIN	64
IV. EBATZI DU.....	71



ERANSKINA: Ordaintzeko jarraibideak¡Error! Marcador no definido.

1. Lehiaren Euskal Kontseiluak, aldez aurretik adierazitako kideez osatuak, Ebazpen hau eman du PINOSOLO LEHIAKETARI lotutako 5/2012 espedienteari dagokionez, Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak (LDEZ) hasi duena ARCAININGENIERÍA Y ARQUITECTURA, SL, AROS ESTUDIO DE ARQUITECTURA, SA, EXCAVACIONES VDA. DE SAINZ, SA eta PUJOL ARQUITECTURA, SLP enpresek lehia murrizteko ustez egindako jardunbideen ondorioz.

I. AURREKARIAK

1. Salaketa

2. 2011ko urtarrilaren 24an, ZRP jaunak DGM de Arquitectos, SLP enpresaren izenean eta hura ordezkatzuz aurkeztutako salaketa-idazkia sartu zen Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuaren erregistroan (1.-454. folioak).

Idazki horren arabera, Pinosolo “Kirolgunearen” lehiaketari dagokionez LEIOA KIROLAK, SAU enpresak (hemendik aurrera LEIOA KIROLAK) deitutako lizitazio batean, informazio-trukea gertatu zen ARCAIN INGENIERIA y ARQUITECTURA, SL enpresaren (hemendik aurrera, ARCAIN) eta AROS ESTUDIO DE ARQUITECTURA, SA enpresak (hemendik aurrera, AROS) eta EXCAVACIONES VIUDA DE SAINZ, SA (hemendik aurrera, VIUDA DE SAINZ) enpresak osatutako Aldi Baterako Enpresa Elkartearen artean (hemendik aurrera, AROS-VIUDA DE SAINZ ABEE). ABEE horrek behin-behineko esleipena jaso zuen bi aldiz, eta azkenean behin betikoa.

Salatzailearen ustez, ARCAINen eta AROS-VIUDA DE SAINZ ABEEaren artean kontzertazioa gertatu da, eta “Pinosolo kirolgunea” proiektuaren idazlari PUJOL ARQUITECTURA, SLP enpresak (hemendik aurrera, PUJOL) zeresan erabakigarria izan du horretan.



Salatzailearen ustez, kontzertazio horren helburua “Kirolgunea” proiektuaren lehiaketa AROS-VIUDA DE SAINZ ABEEari esleitzea da, eta adostasun horretara iristeko, batetik, lehiaketaren pleguei eta AROS-VIUDA DE SAINZ ABEEaren eskaintzari buruzko informazioa elkartrukatu dute aldez aurretik; bestetik, AROS-VIUDA DE SAINZ ABEEaren eskaintzari balio handiegia eman zaio, eta, azkenik, salatzailearen ABEEaren eskaintzari balio txikiegia eman zaio.

Informazio-trukeari dagokionez, salatzaileak CD bat ekarri du frogagisa (hemendik aurrera, CD1), eta bertan jasota dago ARCAINEk “Olatu artifizialeko instalazioa” izeneko hirigintza-jardunerako egindako proiektu teknikoa. CD1 horren barnean bildu dira, batetik, “Olatu artifizialeko instalazioari” buruzko informazioa, “Kirolgunea” proiektuaren lehiaketako lizitzaileen esku utzi behar zena, proiektuen arteko koherentzia lortzeko, eta, bestetik, estalkietako plano bat, hain zuzen ere “Kirolgunea” proiektuaren hirigintza-jardunari dagokiona. Salatzaileak aurkeztutako txosten teknikoaren arabera, PUJOLEk idatzitako proiektu teknikotik atera zen plano hori, eta ondoren AROS-VIUDA DE SAINZ ABEEak aurkeztu zuen “Kirolgunea” proiektuaren lizitazioa egitean. Hau da, salatzailearen ustetan, kirolgunea kudeatzeko ardura duen enpresa publikoak (KIROLGINTZAN SA Foru Sozietate Publikoa; gaur egun, AZPIEGITURAK, SA; hemendik aurrera, KIROLGINTZAN) aurkeztu zituen, prozesua prestatzeko fasean, 2009an kirolgunearen lizitazioaren esleipendun izango zen ABEEaren planoak.

Horregatik, salatzaileak dio ABEE esleipendunaren eskaintza ez zela sekretua izan, salatutako gertakariak gertatu ziren unean indarrean zegoen Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen 129.2 artikulua eskatzen duen bezala.

Salatzaileak uste du operadoreen arteko akordioa egokia zela lehiaketa publiko horretan lehia murrizteko.

Lehia-araudia urratu izanagatiko salaketa ARCAIN, AROS, VIUDA DE SAINZ eta PUJOL merkataritza-konpainien aurka aurkeztu da.



2. Gertakarien harira Leioako Udalak egindako jardunak.

3. 2006ko abenduaren 26an, Leioako Udalak (hemendik aurrera, UDALA) lizitazio publiko bat esleitu zuen Leioako udalerrian urbanizazio-obrak zuzentzeko eta proiektuak idazteko kontratuari dagokionez. IDOM INGENIERIA y CONSULTORIA,SA, LKS INGENIERIA S. COOP eta ARCAIN enpresen alde egin zen esleipena ¹.

Kontratu horren esleipenak garrantziko zenbait ondorio ekarri zituen prozedura honetarako. Izan ere, UDALAK kontsultoretzako eta aholkularitzako zenbait lan eskatu zizkion ARCAIN enpresari honako hiru hirigintza-jardun hauei dagokienez: Pinosolo “Kirolgunea” izeneko kiroldegia, olatu artifizialeko instalazio bat eta kanpoaldeko jolas- eta kirol-eremu bat. Eskaerak ez dira aldi berean egin, eta garrantzi desberdina dute, honako taula honetan ikus daitekeenez:

UDALAK EDO LEIOA KIROLAK-EK ARCAIN-I instalazio bakoitzerako agindutako lanak		
Pinosolo “Kirolgunea”	Aholkularitza eta laguntza teknikoa agintzen zaio “Kirolgunearen” Lehiaketaren aldez aurreko lanak egiteko, hala nola landa-lanak egiteko, kontratazio-formula eta premiak aztertzeke eta baldintza teknikoen pleguak egiteko.	2007ko urria
	Leioa Kirolak-ek Batzorde Ebaluatzaileko kide egiten du Administrazio Kontseiluari laguntza teknikoa eskaintzeko “Kirolgunea” proiektuaren lehiaketa esleitzean, eta horrek esan nahi du ARCAINi Batzorde Ebaluatzaileko hiru kideetako bi esleitzea, hau da, esleipen-irizpideen guztizko puntuazioaren % 55.	2009
“Olatu artifiziala” instalazioa	UDALAREN 1242/08 Dekretuari jarraiki, proiektua idaztea eta obra zuzentzea agintzen zaio.	2008
“Kanpoaldeko jolas- eta kirol-eremua”	Oinarrizko proiektua idaztea eta obra zuzentzea agintzen zaio.	2006

Hiru jardunen funtzioak elkarren osagarri dira, eta horri lotura geografikoa erantsi behar zaio. Horregatik, espedienteari eragiten

¹BAO, 6. zk., 2007ko urtarrilaren 9koa.



dioten gertakariak “Kirolgunea” proiektuarekin zerikusia badute ere, hiru esku-hartzeak eta horien arteko harremanak hartu behar dira kontuan.

4. 2008ko irailaren 18an, UDALaren Osoko Bilkurak Leioako Hiri Antolamendurako Plan Nagusiaren zati baten aldaketa eta Torresolo sektorearen antolamendu xehatua onartu zuen (196. BAO, 2008ko urriaren 13koa). Hirigintza-ikuspegitik, aldaketa hori honela justifikatu da: “udalak urbanizagarri ez-programatu gisa sailkatutako lurzoruen garapena ahalbidetu nahi du, lagapenaren bitartez lurzoru-azalera lortzeko sistema orokorretarako, nola gune libreetarako hala bide-ekipamendu eta -komunikazioetarako” (766. folioa).

5. 2009ko maiatzaren 25ean, Bizkaiko Foru Aldundiak eta UDALAK hitzarmen bat sinatu zuten. Hitzarmen horren helburua bi erakundeen baterako jarduna arautzea zen, besteak beste Pinosolo-Torresolorekin zerikusia zuten jardunetan.

Zehazki, “Olatu artifiziala” instalazioa eraikitzeari dagokionez (ARCAINEk landutako proiektuarekin bat etorriz), Bizkaiko Foru Aldundiak bere gain hartu zuen egikaritze-proiektuaren haritik sortutako eraikuntza- eta gaikuntza-kostuen finantziazioa, proiektuari behin betiko harrera eman arte.

Eragiketa antolatu, garatu eta gauzatuko zen Bizkaiko Foru Aldundiak KIROLGINTZANI egindako agindu espezifikoaren bitartez (1321.-1347. folioak).

6. 2009ko abuztuaren 29an, LEIOA KIROLAKek “Kirolgunea” proiektua idazteko, obra zuzentzeko, segurtasun- eta osasun-arloa koordinatzeko eta obrak egikaritzeko 2009/S 166-240124 lizitazio publikoaren deialdia egin zuen (hemendik aurrera, “2009ko lizitazioa” edo “Kirolgunea” proiektuaren lizitazioa) , 50.191.363, 50 €-ko aurrekontuarekin (BEZa aparte).



3. Prozedura izapidetzea.

7. 2011ko urtarrilaren 24an salaketa jaso ondoren, 2011ko urtarrilaren 26an, sumatutako jokabideari buruzko ohar labur deskriptibo bat bidali zion Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak Lehiaren Batzorde Nazionalari, dokumentazio lagungarri guztiarekin, Lehiaren Defentsaren alorrean Estatuaren eta autonomia-erkidegoen eskumenak koordinatzeko otsailaren 21eko 1/2002 Legeko 2.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuaren eskumena adierazten zela (455.etik 458.era bitarteko folioak).

2011ko otsailaren 8an, Lehiaren Batzorde Nazionalak ofizio bat bidali zuen. Hartan, zera jakinarazten zen: jasotako proposamenari jarraituta, euskal agintaritza eskudun jotzen zela salatutako gaia ikertzeko (68.etik 469.era bitarteko folioak).

8. 2011ko otsailaren 3an, ZRP jaunak DGMren izenean eta hura ordezkatzuz aurkeztutako idazkia Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuko erregistroan sartu zen. Horren bitartez, organo esleitzaila (LEIOA KIROLAK) eta “2009ko lizitazioaren” bigarren Ebaluazio Batzordea osatu zuten enpresak (Bm2 arquitectos, S.C.-MNB; ABC-DEF; eta Idea&Dimensiona, SLP) ere salaketaren eraginpean jartzeko eskatu zuen.

9. 2011ko otsailaren 10ean, Ekonomia eta Plangintzako zuzendariak ebazpena egin zuen, eta, horren bitartez, informazio erreserbatuaren instrukzio-fasea hasiko zela erabaki zen, hala balegokio bidezko zehapen-espeditatea ireki aurretik, Lehiaren Defendatzeko Legearen 49.2 artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Informazio erreserbatuaren instrukzio-fasean, Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak informazioa eskatu zien salatutakoei, beste enpresa batzuei, UDALari eta Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialari, eta informazio hori osatu eta bidali zitzaion.



10. 2011ko urriaren 17an, Ekonomia eta Plangintzako zuzendariak, Lehia Defendatzeko Legearen 49.1 artikuluan ezarritakoari jarraiki, Lege horretan debekatutako lehiaren jardunbide murriztaileengatik zehapen-espedientea irekitzea erabaki zuen, ARCAIN, AROS, VIUDA DE SAINZ eta PUJOL enpresen aurka, eta instruktorea eta idazkaria izendatu zituen.

11. 2011ko abenduaren 14an, espedientearen instruktoreak zegokion gertaerak zehazteko plegua idatzi zuen, Lehia Defendatzeko Legeko 50.3 artikuluan ezarritakoaren arabera (1460.etik 1483.era bitarteko folioak). Gertaerak zehazteko plegu hori behar bezala jakinarazi zen, eta ARCAIN, AROS, VIUDA DE SAINZ eta PUJOL merkataritza-konpainiek horren aurkako alegazioak aurkeztu zituzten.

12. 2012ko apirilaren 3an, espedientearen instruktoreak probidentzia eman zuen, eta, horren bitartez, instrukzio-fasea amaituko zela dekretatu zuen, ebazpen-proposamena idazteko.

13. 2012ko apirilaren 27an, espedientearen instruktoreak honako ebazpen-proposamen hau idatzi zuen, eta Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiari igorri zion:

LEHENENGOA: Lehia defendatzeko uztailaren 3ko 15/2007 Legearen 1.1 artikulua debekatutako lehiaren jardura murriztaileak badaudela adieraztea, zehazkiago, honako jokabide hau egin izana salatzea: “taldeko akordio, erabaki edo gomendio oro, edo hitzartutako praktika edo nahita paraleloa den jardura oro, horien helburua ondorengo bada edo izan badaiteke: merkatu nazional osoan edo zati batean lehia eragotzi, murriztu edo faltsutzea”. Izan ere, jokabide hori oso hutsegite larritzat jotzen da Lege horren 62. artikuluko 4. idatz-zatian.



BIGARRENA: Honako hauek jotzea debekatutako jokabideen erantzuletzat:

ARCAIN INGENIERÍA Y ARQUITECTURA, SL. IFK: B95158994. Helbide soziala: IBAIONDO PLAZA, 4-1., LEIOA (Bizkaia). (PK: 48940).

AROS ESTUDIO DE ARQUITECTURA, SA. IFK: A48291942. Helbide soziala: ESTARTETXE, 19, LEIOA (Bizkaia). (PK: 48940).

EXCAVACIONES VIUDA DE SAINZ, SA. IFK: A48154348. Helbide soziala: CAMPILLO INDUSTRIALDEA, ABANTO ZIERBENA (Bizkaia). (PK: 48500).

HIRUGARRENA: Lehia Defendatzeko uztailaren 3ko 15/2007 Legearen 53. artikulua aipatzen dituen gainerako adierazpenak har ditzala.

Aipatu ebazpen-proposamena zehapen-espeditzeko interesdunei jakinarazi zitzaion, eta haiek alegazioak aurkeztu zituzten. Alegazio horien esparruan, AROS enpresak Bista egiteko eskaera egin zuen.

14. 2012ko ekainaren 8an, desagindako Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuan 2/2011 zenbakiarekin izapidetutako zehapen-prozeduraren instruktoreak Ebazpen Proposamena eta administrazio-espeditzea igorri zizkion desagindako Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiari, hark zuzenbidearen arabera zegokion ebazpena eman zezan. Administrazio-espeditzeari instruktorearen txostena gehitu zitzaion. Haren bidez, instruktoreak adierazi zuen ARCAIN eta AROS-VIUDA DE SAINZ ABEEak ebazpen-proposamenari alegazioak aurkeztu zizkiotela; alegaziook ez zutela ezertan indargabetzen ebazpen-proposamena, eta, horregatik, berak osoki berresten zuela hartan adierazitako guztia.



15. Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak igorritako zehapen-espedita desegindako Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegian erregistratu zen, zenbaki honekin: 5/2012, PINOSOLO LEHIAKETA.

16. Lehiaren Euskal Agintaritzaren jarduerak hastearekin, eta 1/2012 Legeko Lehenengo Xedapen Iragankorraren arabera, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegia desegin egin da, eta Lehiaren Euskal Kontseiluari dagokio orain goian aipatutako zehapen-prozedura ebaztea.

17. 2013ko martxoaren 27ko bilkuran, Lehiaren Euskal Kontseiluak honako erabaki hau hartu zuen:

LEHENA.- 15/2007 Legearen 51.4 artikulua aplikatuz, ebazpen-proposamenean jasotako gertaerak birkalifikatzea, egindako jokabideak, lege horren 1.1 artikulua urratzeaz gain, 3. artikulua ere urra dezakeelako.

BIGARRENA.- 15/2007 Legearen 51.4 artikulua aplikatuz, kalifikazio berria administrazio-prozedura zehatzaile honetako interesdunei eta Lehiaren Euskal Agintaritzza honetako lkerketa Zuzendaritzari jakinaraztea, hamabost eguneko epean egokitzen jotzen dituzten alegazioak egin ditzaten.

HIRUGARRENA.- 15/2007 Legearen 37.1.f artikulua aplikatuz, zehapen-prozedura honetan ebazpena emateko epea etetea, agiri honetako datatik ebazpen honen bigarren atalean adierazitako izapideak bideratu arte.

Ebazpen hori interesdunei jakinarazi zitzaien, lege jakinarazi ere.

18. 2013ko apirilaren 11n, XXX jaunak AROS enpresaren izenean eta hura ordezkatzuz sinatutako idazkia sartu zen Lehiaren Euskal Agintaritzaren erregistroan. Idazki horretan, 05/2012 espedienteari dagokionez jokabidearen kalifikazio juridiko berriari buruzko



erabakiaren aurkako alegazioak aurkezteko emandako epea luzatzeko eskaera egin zuen.

2013ko apirilaren 12an, Lehiaren Euskal Kontseiluak ebazpen bat eman zuen, birkalifikazio-erabakiaren aurkako alegazioak aurkezteko epea 2013ko maiatzaren 2ra arte luzatzeko eskaera baiesteko.

19. ARCAIN, AROS eta VIUDA DE SAINZ, SA enpresek gertaerak birkalifikatzeko erabakiaren aurkako alegazioak aurkeztu zituzten, garaiz eta behar bezala aurkeztu ere.

DGMk ere alegazioak aurkeztu ditu, baina horretarako emandako epeaz kanpo.

PUJOLEk, LEIOA KIROLAek, IKERKETA ZUZENDARITZAK eta LEHIAREN BATZORDE NAZIONALAK, aldiz, ez dute kalifikazio berriaren aurkako alegaziorik aurkeztu.

20. Lehiaren Euskal Kontseiluak, 2013ko maiatzaren 21ean egindako bilkuran, espediente hau eztabaidatu eta erabaki du.

21. Honako hauek dira interesdunak:

- ARCAININGENIERÍA Y ARQUITECTURA, SL.
- AROS ESTUDIO DE ARQUITECTURA, SA.
- EXCAVACIONES VIUDA DE SAINZ, SA.
- PUJOL ARQUITECTURA, SLP.
- DGM DE ARQUITECTOS, SLP.
- LEIOA KIROLAK, SAU.
- LEHIAREN BATZORDE NAZIONALA



II. FROGATUTAKO GERTAERAK

22. Txostenean eta ebazpen-proposamenean, eta espedienteen bildutako informazioan, honako gertaera hauek jaso dira. Horien berri izatea funtsezkoa da espedienteak ebazteko, eta Lehiaren Euskal Kontseiluaren ustez behar bezala egiaztatu eta frogatu dira.

1. Enpresak

23. LEIOA KIROLAK, SAU kapital publikoko pertsona bakarreko merkataritza-sozietatea da. Leioako Udalaren titulartasunpekoa da, eta, bere xede sozialarekin bat etorriz, bere izenean eta Leioako Udalaren izenean jarduten du azterlanak egiteko, proiektuak egiteko, eraikitzeko, kontserbatzeko, mantentzeko, finantzatzeko eta, bere kabuz edo hirugarrenen bitartez, Leioako Udalak haren esku utzitako kirol-instalazioak ustiatzeko. UDALAK sortu zuen sozietatea, 2008ko uztailaren 16an, Pinosolo-Torresolo gunearen hirigintza-garapenari heltzerakoan, eta, zehazkiago, aurreikusitako kirol-ekipamenduak proiektatu eta eraikitzerakoan. 2009ko abuztuaren 29an, LEIOA KIROLAKek lizitazio publikoaren deialdia egin zuen proiektua idazteko, obra zuzentzeko, segurtasun- eta osasun-arloa koordinatzeko eta ondoren “Kirolgunea” proiektuaren lehiaketa izango zenaren obrak egikaritzeko .

24. ARCAIN INGENIERIA y ARQUITECTURA, SL enpresak Leioan du egoitza soziala, eta honako zerbitzu hauek eskaintzen ditu: proiektuak aztertu eta idaztea, obrak zuzendu eta ikuskatzea, topografia-lanak egikaritzea eta GIS (Informazio Geografikoko Sistemak) aplikazioak diseinatzea.

Torresolo-Pinosolo gunean kirol-ekipamenduak ezartzeko egindako jardun publikoen esparruan, honako hauek egiten ditu, UDALaren eskaerei jarraiki:

- Aholkularitzako eta laguntza teknikoko lanak “Kirolgunea” proiektuaren lehiaketaren aurreko lanak egikaritzean, hala



nola landa-lanak, kontratazio-formula eta premien azterketa eta 2007. urteko baldintza teknikoei buruzko pleguak lantzea.

- “Olatu artifiziala” proiektua idaztea eta horren obra zuzentzea, 2008. urtean.

- 2009an batzorde ebaluatzaile batean parte hartu zuen, LEIOA KIROLAKeko Administrazio Kontseiluari laguntza teknikoa eskaintzeko “Kirolgunea” proiektuaren lehiaketaren esleipenean, batzorde horretako hiru kideetako bi eta esleipen-irizpideen % 55 izanik.

- Kanpoaldeko jolas- eta kirol-eremuko oinarrizko proiektua idaztea eta horren obra zuzentzea.

25. AROS ESTUDIO DE ARQUITECTURA, SA enpresak Leioan du egoitza soziala. Oro har, higiezinaren eta ingeniariaren zibileko obra berezien eraikuntzan dihardu, eta arkitektura- eta ingeniariaren zerbitzu teknikoak ere eskaintzen ditu.

AROS-VIUDA SAINZ ABEEko % 70 da AROS. ABE horri “Kirolgunea” proiektuaren lehiaketa esleitu zitzaion, eta PUJOL kontratatu zuen “Kirolgunea” proiektua idazteko.

Gainera, UDALAK AROSi Torresoloko kanpoaldeko jolas- eta kirol-eremuaren egikaritzea esleitu zion.

26. EXCAVACIONES VIUDA DE SAINZ, SA enpresak Abanto Zierbenan du egoitza soziala, eta lurra industriko, harrotzeko eta mugitzeko lanak eta aginduak egitea eta ustiatzea da haren xede soziala, baita obrak eraikitzea eta egikaritzea, eta zerbitzuak ematea ere.

AROS-VIUDA SAINZ ABEEko % 30 da VIUDA DE SAINZ, eta ABEE horri esleitu zitzaion “Kirolgunea” proiektuaren lehiaketa .

27. PUJOL ARQUITECTURA, SLP enpresak Bartzelonan du egoitza soziala. Arkitektura- eta hirigintza-proiektuak egiten eta garatzen ditu, kirol instalazioetan bereziki.



AROSek PUJOL kontratatu zuen lehiaketara aurkeztutako “Kirolgunea” proiektua lantzeko. (2008-2011).

28. KIROLGINTZAN SA foru-sozietate publikoa da, eta “Olatu artifiziala” proiektua kudeatzeko agindua eman zaio.

29. Ebazpenean honako enpresa hauek ere aipatu dira:

- DGM de ARQUITECTOS, SLP enpresa salatzailea da.
- Bm2 arquitectos, S.C.-MNB; ABC-DEF; eta Idea&Dimensiona, SLP enpresa taldeak “Kirolgunea” proiektuaren lehiaketaren bigarren “batzorde ebaluatzailean” parte hartzen du.
- IDOM INGENIERIA y CONSULTORIA,SA eta LKS INGENIERIA S. COOP, ARCAINekin batera 2006ko lizitazioaren esleipendun izan direnak .
- FCC CONSTRUCCION SA eta CONSTRUCCIONES OLABARRI ABEEa “2009ko lizitaziora” aurkeztu da, eta DGM kontratatu du proiektuaren zati baterako .

2. Frogatutako gertaeren kontakizun kronologikoa.

30. 2006. urtean, UDALAK lizitazio publikoaren eraginpean jarri zuen Leioako udalerrian urbanizazio-obrak zuzentzeko eta proiektuak idazteko kontratua.

2006ko abenduaren 26an, UDALAK ARCAINI esleitu zion, besteak beste, Leioako udalerrian urbanizazio-obrak zuzentzeko eta proiektuak idazteko kontratuari buruzko lizitazio publikoa.

Kontratu horren esleipenak zera ekarri zuen berekin, UDALAK ARCAINI Pinosolo-Torresolo eremuko 24. paragrafoan deskribatutako prestazioak egiteko agindua ematea .



31. 2007ko urrian, Udalak ARCAIN enpresari agindu zion aholkularitza eta laguntza teknikoa ematea “Kirolgunea” proiektuaren lehiaketaren alde aurreko lanak egikaritzean (landalanak; kontratazio-formula eta premien azterketa; baldintza teknikoei buruzko pleguak egitea).. 2007ko azaroan, ARCAINEk txostena eman zuen, bere aholkularitza-zereginen esparruan, “Leioako Pinosolo kiroldegiko giltza eskurako egikaritze-lehiaketaren inguruko alde aurreko lanei dagokienez”, “Kirolguneari” loturik. Txosten horretan bildu dira, dokumentu-aurrekarien artean, txostenaren oinarrizko dokumentuak:

- Lehendik dagoen eraikuntzaren geometriak, gutxi gorabeherakoak, bulego teknikoak eskainiak.
- Bulego teknikoak eskainitako oinarrizko kartografia.
- Bizkaiko Foru Aldundiaren ortoargazkiak.
- Kiroletako Zuzendaritzaren jarraibideak.

32. 2008an, 1242/08 Dekretuaren bitartez, UDALAK ARCAINI agindua eman zion, haren aholkularitza-zereginen esparruan, “Olatu artifiziala” proiektuko instalazioetako obra zuzentzeko eta proiektua idazteko (1668. folioa).

33. 2009ko otsailean, “Kirolgunea” proiektua kontratatzeko espedienteari hasiera eman zitzaion.

34. 2009ko abuztuaren 29an, LEIOA KIROLAKek Pinosoloko “Kirolgune” berriaren proiektua idazteko, obra zuzentzeko, segurtasun- eta osasun-arloa koordinatzeko eta obrak egikaritzeko lizitazio publikoaren deialdia egin zuen, 50.191.363,50 €-ko aurrekontuarekin.

LEIOA KIROLAKeko Administrazio Kontseiluak zera erabaki zuen, “Kirolgunea” proiektuaren lehiaketan bildutako eskaintzen berri emateko “egokitzen jotzen zuen aholkularitza teknikoa biltzea”. Ildo horretan, batzorde ebaluatzaile bat sortzeko erabakia hartu zen, eta,



batzorde hori eratzeko, “ingeniaritzan eta arkitekturan aditutako enpresa baten zerbitzuak od hoc(sic) kontratatu ziren batetik, eta kudeaketa- eta funtzionaltasun-alorreko aditu baten zerbitzuak bestetik” (1679. folioa). Enpresa horiek ARCAIN (bi teknikari ekarri ditu aholkularitza-lanetarako) eta AFP TALDEA dira (bat ekarri du) (260.-285. folioak).

2010eko otsailaren 8an Batzorde Ebaluatzaileak “Kirolgunea” lehiaketa esleitzeko proposamena eman zuen . Batzordeak emandako emaitzaren arabera, guztizko puntuazioari jarraiki AROS-VIUDA SAINZ ABEE geratu zen lehen tokian (260.-285. folioak).

2010eko otsailaren 10ean, LEIOA KIROLAKeko Administrazio Kontseiluak AROS-VIUDA SAINZ ABEEaren aldeko erabakia hartu zuen “Kirolgunea” proiektuaren lehiaketaren behin-behineko esleipenari dagokionez .

Behin-behineko esleipen horren aurka DGMk errekurtsio berezia jarri zuen, sektore publikoaren kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen 37. artikulua babesean. Errekurtsio horren zati bat 2010eko ekainaren 10ean baietsi zen, eta behin-behineko esleipena baliogabetu zen, jarduerak atzera eramanez balioespen berri bati ekiteko (203.-205. folioak).

2010eko uztailaren 15ean Batzorde Ebaluatzaileak eskaintzak ebaluatzeko bigarren txostena eman zuen (lehen batzorde ebaluatzailearen bigarren txostena).

Txosten horretan, AROS-VIUDA SAINZ ABEEa ageri zen berriz ere lehen tokian, guztizko puntuazioari jarraiki (166.-202. folioak).

2010eko uztailaren 20an, LEIOA KIROLAKeko Administrazio Kontseiluak AROS-VIUDA SAINZ ABEEaren aldeko erabakia hartu zuen “Kirolgunea” proiektuaren lehiaketaren behin-behineko esleipen berriari dagokionez (161.-165. folioak).

Behin-behineko esleipen horren aurka DGMk errekurtsio berezia jarri zuen, sektore publikoaren kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen 37. artikulua babesean. Errekurtsio horren zati



bat 2010eko azaroaren 12an baietsi zen, eta behin-behineko esleipena berriz ere baliogabetu zen.

LEIOA KIROLAKeko Administrazio Kontseiluaren arabera, “egindako balioespenaren inpartzialtasuna eta gardentasuna ez zegoen behar bezala bermatua behin-behineko esleipena erabakitzeko”. Horregatik berriz ere ezarri zen jardunak atzera eramateko betebeharra, balioespen berri bat egiteko beste batzorde ebaluatzaile baten eskutik (batzorde ebaluatzailea)(149.-153. folioak eta 1671.-1677. folioak) (Gertaerak zehazteko pleguaren 1713. folioa).

2010eko abenduaren 23an, LEIOA KIROLAKeko Administrazio Kontseiluko lehendakariaren 1/2010 Ebazpenaren bitartez, “Kirolgunea” proiektuaren lehiaketarako bigarren batzorde ebaluatzailea izendatu zen. BM2 ARQUITECTOS, S.C.-MNB; ABC-DEF eta IDEA & DIMENSIONA, SLP enpresetako ordezkari banak osatu zuten Batzorde berria (1669.-1670. folioak).

2011ko otsailaren 11n, LEIOA KIROLAKeko Administrazio Kontseiluek AROS-VIUDA SAINZ ABEEaren aldeko erabakia hartu zuen “Kirolgunea” proiektuaren lehiaketaren behin-behineko esleipenari dagokionez (1116. folioa).

35. 2012ko urriaren 3an, LEIOA KIROLAKeko lehendakariak erabaki zuen “Kirolgunea” proiektuaren lehiaketarako AROS-EXCAVACIONES-VIUDA DE SAINZ ABEEari esleitutako kontratua elkarrekiko adostasunez suntsiarazteko espedientea irekitzea.

36. Enpresetako jardunei dagokienez, Lehiaren Euskal Kontseilu honek frogatutzat ematen ditu Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuaren 2011ko abenduaren 14ko gertaerak zehazteko pleguan jasotako gertaerak, eta jarraian gertaera horiek deskribatuko ditugu hitzez hitz.



“ZORTZIGARRENA: KIROLDEGIKO LEHIAKETAREN proiektua bi hirigintza-jardun gehiagorekin osatu da: olatu artifizialeko instalazio bat eta kanpoaldeko jolas- eta kirol-eremu bat. “Olatu artifizialeko instalazioa” proiektua idaztea eta horren obra zuzentzea (hemendik aurrera, OLATU LEHIAKETA) ARCAIN INGENIERIA Y ARQUITECTURA, SL enpresari esleitu zitzaion, Leioako Udalaren 1242/08 Dekretuaren bitartez (1668. folioa).

2008ko irailean, ARCAIN INGENIERIA Y ARQUITECTURA, SL sozietateak LEIOAKO UDALARI eta KIROLGINTZAN, SARI (gaur egun, AZPIEGITURAK, SA) eman zien OLATU LEHIAKETAREN proiektuaren kopia, paperean eta CDan, Xref\Copia del proyecto.dwg plano eta guzti (146. eta 1485. folioak).

Aldez aurretik aipatu dugunez, hirigintza-jardunak elkarren osagarri dira, eta horregatik KIROLDEGIKO LEHIAKETAREN lizitatzailleek OLATU LEHIAKETAREN proiektuarekin bat egiteko aukera izan zuten. KIROLGINTZAN, SAK (gaur egun, AZPIEGITURAK, SA) banatu zuen proiektua CD formatuan, 2009ko maiatzaren 25ean Bizkaiko Foru Aldundiak eta Leioako Udalak sinatutako hitzarmenari jarraiki. Horren bitartez, KIROLGINTZAN, SAK (gaur egun, AZPIEGITURAK, SA) olatu artifizialeko instalazioaren finantziazioan eta de prestaketan esku hartuko zuen, ARCAINEK landutako proiektuarekin bat etorriz (1321.-1347. folioak). CD hori ez zectorren bat ARCAIN INGENIERIA Y ARQUITECTURA, SLK eman zion CDarekin, eta ez zuen Xref\Copia del proyecto.dwg fitxategia biltzen (477.-480. folioak). Enpresei emandako CDaren kopiak egiteko, antzeko prozedura bati jarraitu zitzaion (1454. folioa).



BEDERATZIGARRENA: LEIOAKO UDALAK eta LEIOA KIROLAK, SAUK ez dute OLATU LEHIAKETAREN CDa ofizialki banatu (1437. folioa).

HAMARGARRENA: DGM DE ARQUITECTOS, SLP ez du ofizialki jaso KIROLGINTZAN, SAK (gaur egun, AZPIEGITURAK, SA) emandako OLATU LEHIAKETAREN CDa (479., 1450. eta 1456. folioak), baina bada CD baten jabea (hemendik aurrera, CD1). CD1 hori alde batera utzita, DGM DE ARQUITECTOS, SLPk badu OLATU LEHIAKETAREN beste CD bat (hemendik aurrera, CD2), 2010eko apirilaren 26an KIROLGINTZAN, SARI eskatu ziona (gaur egun, AZPIEGITURAK, SA) eta 2010eko apirilaren 29an jaso zuena Juan Ramón Manzano Malaxechevarria notarioaren aurrean, LEIOAKO UDALAK erabakitako behin-behineko esleipenari lotutako dokumentazio guztia lortzeko eta horren aurkako errekurtsioa behar bezala prestatzeko (101.-111. folioak , eta 1454., 1455. eta 1447. folioak).

HAMAIKAGARRENA: DGM DE ARQUITECTOS, SLP enpresaren CD1en barruan hartzen ziren, batetik, karpeta nagusi bat, proiektuaren planoekin, eta, bestetik, azpikarpeta lagungarri bat (Xref), Xref\Copia del proyecto.dwg fitxategiarekin (124. eta 125. folioak). Xref fitxategi horren barnean, kirolguneko estalkiei buruzko plano bat hartu da, kota xehatuak barne, eta esan beharra dago plano hori 2009ko azaroan AROS ESTUDIO ARQUITECTURA SA-EXCAVACIONES VIUDA SAINZ, SA ABEEak *LEIOA A 06.dxf* izeneko KIROLDEGIKO LEHIAKETARAKO proposamenean aurkeztutakoaren ia-ia berdina dela (1488. eta 1489. folioak).

HAMABIGARRENA: KIROLGINTZAN, SAK (gaur egun, AZPIEGITURAK, SA) ENRIQUE OTADUY, SL, ACCIONA, SA, ALTUNA Y URIA, SA, JOSÉ ANTONIO OLABARRI CONSTRUCCIONES, CONSTRUCCIONES Y



PROMOCIONES BALZOLA, SA, TECSA, EMPRESA CONSTRUCTORA, SA eta EXCAVACIONES VIUDA SAINZ, SA enpresei eman zizkien, besteak beste, OLATU LEHIAKETAREN CDak, eta ez CD horietan ez DGM DE ARQUITECTOS, SLP enpresaren CD2an ez da Xref\Copia del proyectado.dwg fitxategia bildu (99., 496., 527., 529., 531., 536., 543., 545. eta 1031.-1034. folioak).

HAMAHIRUGARRENA: PUJOL ARQUITECTURA, SLPk parte hartu du AROS ESTUDIO ARQUITECTURA SA-EXCAVACIONES VIUDA SAINZ, SA ABEEak KIROLDEGIKO LEHIAKETARI aurkeztutako proiektua lantzean (1549. eta 1590. folioak).

HAMALAU GARRENA: Zenbait antzekotasun nabaritu dira OLATU LEHIAKETAREN CDAREN eta AROS ESTUDIO ARQUITECTURA SA - EXCAVACIONES VIUDA SAINZ, SA ABEEak KIROLDEGIKO LEHIAKETARI aurkeztutako proiektuan bildutako CDAREN artean (ABEE hori lehiaketa horren esleipendun atera da) (1028. folioa).

Zehazkiago, geruza batzuetan izen zati berberak ageri dira batetik, eta, CD bakoitzaren fitxategi batean H\PROJECTES-CONCURSOS\LEIOA\ karaktere-katea ageri da bestetik. Honako geruza hauetan ageri dira izen berberak (1487. bis-1487. quater):

EST_PRO

EST_REF

FIP_PRO

FIP_VID

Z_AUX



Z_EDIFICACION

Z_PAV

Z_plaza

Z_SIMBOLOGIA

Z_TRA_251

Z_TRA_253

Z_TRA_254

Z_TRA_255

Z_TXT

Z_VEG

Z_VIAL

HAMABOSGARRENA: PUJOL ARQUITECTURA, SLP enpresaren “PROJECTES-CONCURSOS” izeneko direktorio zahar batean, azpidirektorio bat zegoen, eta bertan gordetzen ziren Leioako proiektu eta lanei buruzko fitxategi garrantzitsuak (1509. eta 1702. folioak).”

37.Horregatik guztiagatik, gertaerak zehazteko pleguari jarraiki, eta zuzenbideko oinarrien atalean egingo den presuntzio-frogaren azterketa kontuan hartuz, Lehiaren Euskal Kontseilu honek frogatutzat jotzen du AROsek eta ARCAINEk garrantzizko informazioa elkartrukatu dutela, “Kirolgunea” proiektuaren lizitazioari dagokionez .



III. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1. A. Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiaren eta Lehiaren Euskal Agintaritzaren arteko trantsizioa

38. Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiari igorri zion ebazpen-proposamena, ebatz zezan. Alabaina, agiri honen datan, eta Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzko 1/2012 Legeko Bigarren Xedapen Gehigarrian xedatutakoaren arabera, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegia desagertu egin da Lehiaren Euskal Agintaritzza jardunean hasi denetik, hau da, 2012ko uztailaren 17tik.

Horregatik, eta Bigarren Xedapen Iragankorrean nahiz Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzko 1/2012 Legeko 10.a artikuluan xedatutakoari jarraiki, Agintaritzza horri dagokio, Lehiaren Euskal Kontseiluaren bitartez, zehapen-prozedurak ebatzea.

2. AROS enpresak eskatutako bista.

39. Lehiaren Euskal Kontseilu honek balioetsi behar du AROS enpresak egindako bista-eskaera egokia den edo ez.

Lehiaren Defentsarako otsailaren 22ko 261/2008 Erregelamenduko 19. artikulua arabera, Kontseiluak “erabaki dezake bista egitea, interesdunen eskaerari jarraiki edo espedientearen xedea aztertzeke egokitzat jotzen badu.”

Hortaz, bistaren bitartez alderdiei aukera eman nahi zaie beren defentsa-eskubidea antolatzeke, Lehiaren Euskal Kontseiluaren esku elementu jakin batzuk utzita, espedientea ongi aztertu ahal izateke.

Lehiaren Euskal Kontseiluaren ustetan, zehazpen-prozedura honetan alderdiek beren eskubideak defendatzeko beharrezko jardun guztiak egin ahal izan dituzte, alegazioak eginez instrukzioaldian eta ebazpenaldian, eta, azken horren barnean,



birkalifikazioan, beren jarrerak defendatzeko egokitzat jo izan dituzten idazkiak aurkeztuz.

Horregatik guztiagatik, Lehiaren Euskal Kontseiluaren ustez kontraesan-printzipioa errespetatu da prozeduran, eta bista ez da egokia espedienteaz aztertzeko; beraz, ez du egokitzat jotzen bista egitea.

3. DGM salatzailea

40. AROsek bere alegazioetan adierazi du DGMk ez duela legezko interesik merkataritza-konpainia horren aurka salaketarik jartzeko.

Ildo horretan, Lehiaren Euskal Kontseiluak uste du DGMk salatutako gertaerak lehiaren defentsarako araudiaren aurkakoak direla. Salaketa horri esker, Lehiaren Agintaritzak gertaera jakin batzuen berri izan du, eta Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak zehapen-zerbitzu bat hasi du, ofizioz eta bere ekimenez. Lehiaren zuzenbidezko prozeduretan, salatzailea izateko ez da zertan legezko interesik egiaztatu.

Salaketa abiapuntu hartuta, administrazio-agintaritzari dagokio gertaerak azterzea, eta, behin azterketa hori eta egokitzat jotzen dituen ikerketak egin ondoren, Lehiaren Defendatzeko Legearen 49.2 artikuluari jarraiki, zehapen-prozedura hastea, baldin eta araudi hori urratu izanaren arrazoizko zantzuak atzematen baditu.

4. Garrantzizko merkatuari buruzko azterketa

41. Gertaeren kalifikazioari heldu aurretik, eraginpeko merkatuaren ezaugarriak zehaztu behar dira, hain zuzen ere Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak ebazpen-proposamenean dagoeneko zehaztu dituenak.



42. 2009ko abuztuaren 29an, LEIOA KIROLAKek “Kiolgunea” proiektuaren lehiaketarako deialdia egin zuen².

“Kiolgunea” proiektuaren lehiaketaren deialdia egin zen unean, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legean, Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuan eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen zati bat garatzen duen maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuan agindutakoaren arabera arautzen zen kontratua³.

“Kiolgunea” proiektuaren lehiaketaren bitartez, Pinosolo kiroldegi berriaren proiektua idatzi, obra zuzendu, segurtasun- eta osasun-arloa koordinatu eta obrak egikaritu nahi dira. Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 25.2 artikuluekin bat etorritik, obrako, proiektuko eta egikaritzeko prestazioak kontratu misto batean bildu dira, eta horrela bermatu da obra kontratista espezializatuen ardurapena uztea, diseinua sortzeko faseetik enpresa eraikitzaileen espezializaziora bitarte. LEIOA KIROLAKen ustez, prestazioak batera kontratatzea onuragarria da lanaren azken emaitzarako ikuspegi tekniko eta ekonomiko batetik, “udalerrientzat enblematikoa izatea lortu nahi den horrelako kirolgune baten berezitasuna aintzat hartuta” (308. folioa).

Kontratuaren deialdia prezioa itxita egin da, lizitazioaren gehieneko prezioa 50.191.363,50€ izanik, eta horri BEZa erantsi behar zaio (8.030.618,16€), igoerarik egiteko aukerarik gabe.

43. Lehenik eta behin zera erabaki behar da, “Kiolgunea” lehiaketak berez merkatu bat osatzen duen edo merkatu zabalago baten zati ote den.

²Iragarkia 2009/08/29ko EBAOean.

³3/2011 Errege Lege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen testu bategina onartzen duena.



Horretarako, Lehiaren Batzorde Nazionalak errepideen lizitazioei buruzko S/0226/10 Ebazpenean hartutako irizpideak hartu behar dira kontuan⁴,

“...Ikuspegi ekonomiko batetik, lizitazio edo lehiaketa batek bere kabuz garrantziko merkatu bat eratzeko aukerak, funtsean, honako faktore hauen eraginpean egongo dira: lizitatzen den produktuaren izaera, produktu horren bereizketa-maila eta merkaturatzeko maiztasuna. Lehiaketa edo enkantean jartzen dena oso produktu berezia baldin bada, eta gainera oso noizbehinka bano merkaturatzen ez bada, lehia-baldintzak oso espezifikoak izango dira, edo asko aldatuko dira batetik bestera. Kasu horietan egokia izan daiteke lizitazio bakoitza merkatutzat jotzea”.

Irizpide horiei jarraiki, Administrazio Publikoek maiz obra-lizitazioak deitzen badituzte ere dagokion proiektuaren prestazioarekin batera, LEIOA KIROLAKek deitu duen eta hemen aztergai dugun lizitazioak bere berezitasunak baditu, eta Lehiaren Euskal Kontseilu honek balioetsi behar ditu garrantzizko merkatua zehazteko.

Obra-lizitazio horrek bi baldintza bete behar ditu: batetik, kirol-instalazioko proiektu bat eduki behar du ezinbestean, eta bestetik, 10.000.000€-tik gorako proiektu mota horietan alde aurreko esperientzia duen enpresa batek bere gain hartu behar du proiektuaren ardura. Espezifikotasun horrek, lizitaziorako aurreikusitako 58 milioi euroko prezioarekin batera, horrelako lizitazioen deialdien maiztasunean eragiten du, eta, horrenbestez, proiektu erantsia duten obra-lizitazioetan ohikoa dena noizbehinkako bihurtzen dute, aztertutako kasuan.

Merkatu horretan lehiatzen diren enpresen eskaintza txikiagoa da merkatu zabalago batek, obra-lizitazioen merkatuak adibidez, osatzen duen eskaintza baino.

⁴ ...Ikuspegi ekonomiko batetik, lizitazio edo lehiaketa batek bere kabuz garrantziko merkatu bat eratzeko aukerak, funtsean, honako faktore hauen eraginpean egongo dira: lizitatzen den produktuaren izaera, produktu horren bereizketa-maila eta merkaturatzeko maiztasuna. Lehiaketa edo enkantean jartzen dena oso produktu berezia baldin bada, eta gainera oso noizbehinka bano merkaturatzen ez bada, lehia-baldintzak oso espezifikoak izango dira, edo asko aldatuko dira batetik bestera. Kasu horietan egokia izan daiteke lizitazio bakoitza merkatutzat jotzea.



Hori aintzat hartuta, Lehiaren Euskal Kontseiluak garrantzizko merkatua zehaztu behar du LEIOA KIROLAKek “Kirolguneari” dagokionez deitutako lizitazioan.

44. Beraz, aurrekoa aintzat hartuta, lehiaketa honen ezaugarriei helduko diegu bakarrik.

Esleitzeko prozedura irekia da, hau da, edozein enpresaburuk proposamen bat aurkez dezake eta kontratuaren lizitatzailerik bihurtu, eta kontratuaren nondik norakoak ezin daitezke negoziatu⁵.

Lizitatzeko interesa duten enpresak honako multzo hauetan sailkatu behar dira obra-kontratista gisa:

- C taldea (Eraikuntzak), 2. azpitaldea, (Fabrikako edo hormigoizko egiturak), F kategoria.
- C taldea (Eraikuntzak), 3. azpitaldea, (Metalezko egiturak), F kategoria.
- C taldea (Eraikuntzak), 4. azpitaldea, (Igeltsero-lanak, emokadurak eta estaldurak), F kategoria.
- C taldea (Eraikuntzak), 5. azpitaldea, (Hargintza eta marmolgintza), F kategoria.

(Obra-kontratuei buruzko F kategoria 2.400.000 eurotik gorako kontratuei dagokie, eta kopuru hori urteko batez besteko kopuruaren arabera zehazten da⁶).

Asko dira horrela sailkatutako enpresak⁷.

Bestetik, sektore publikoarekin kontratuak egin ahal izateko, enpresaburuek gutxienezko baldintzak bete beharko dituzte finantza-eta ekonomia-kaudimenari eta fidagarritasun profesional edo

⁵Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 141. art.

⁶Urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretua, Administrazio Publikoen kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Nagusia onartzen duena.

⁷Izan ere, EAEko Kontratisten Erregistro Ofizialean 144 enpresa daude izena emanda, eta askoz ere gehiago estatuko Erregistroa aintzat hartzen badugu: http://www.contratacion.euskadi.net/w32-content/es/contenidos/informacion/registro_oficial_contratistas/es_roc/informacion_general.html



teknikoari dagokienez, kontratazio-organoak ezarritakoaren arabera (Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 51.1 artikulua).

“Kirolgunea” proiektuaren lehiaketari dagokionez, fidagarritasun teknikoari buruzko atalean, zera adierazi da, besteak beste, kontratista batekin batera lehiaketara eskaintzaren zati gisa aurkezten den idazlari taldeak bere fidagarritasun teknikoa egiaztatu beharko duela gutxienez antzeko proiektu bat xehatuz, kontratu honi dagokionaren antzeko kirol-instalazio bati buruzkoa, baldin eta horren aurrekontua, BEZa aparte utzita eta behar bezala eguneratua, gehienez 10.000.000 euro izan bada, kideen curriculum osoa aurkeztuta, beste betekizun batzuen artean. Esperientzia hori egiaztatzeko, egikaritze oneko ziurtagiriak aurkeztu behar dira, egikaritzearen zenbatekoa, datak eta tokia, eta obrak lanbidearen arauen arabera egin ote ziren eta ondo burutu ote ziren adierazita (368. folioa)⁸.

Hortaz, obrak kontratatzeko eta lizitaziora jotzeko aukera duten enpresen kopurua handia bada, eskaintza mugatuta geratzen da, idazlari taldeak, ezinbestean, lizitatutakoarekin antza duen gutxienez proiektu bat eduki behar duelako eginda. Eskaintzaren aldetik ordezkatzeko aukerak handiak dira hasiera batean (sailkapen nahikoa duten obrak kontratatzeko enpresak), baina aukera horiek mugatzen dira fidagarritasun ekonomikoarekin zerikusia duen irizpidearen eraginez, eta esperientzia jakin bat duen idazlari talderik gabeko eskaintzak baztertuta geratzen dira.

Hortaz, sailkapen egokia edukitzea ez da nahikoa, proiektua ere funtsezkoa delako, logikoa denez kiroldegi enblematiko baten eraikuntzaz ari garela aintzat hartuta.

Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak lizitazio hori ebazteko egindako proposamenean adierazi duenez, lurralde osoko enpresak aurkez daitezke, baldin eta eskatutako sailkapenaren jabe badira eta eskatutako kaudimeneko eta fidagarritasuneko irizpideak

⁸Dagokigun lizitazioan eskatutako kaudimen ekonomiko eta finantzarioko eta fidagarritasun tekniko edo profesionaleko baldintzak administrazio-klausula partikularren pleguaren 8.3.2.3. klausulan ezarritakoak dira, eta bertan jaso dira, halaber, eskatutako kaudimena eta fidagarritasuna egiaztatzeko irizpideak.



betetzen badituzte. Hala eta guztiz ere, aurreko deskribapena kontuan hartuz eta AROsek ildo horretan planteatutako alegazioa aintzat hartuz, Lehiaren Euskal Kontseilu honek uste du lizitazioa dela eraginpeko merkatua. Izan ere, “Kirolgunea” proiektuaren lehiaketara aurkeztutako 9 ABEE eta enpresetako batzuek autonomia-erkidegoan jarduten dute, eta beste batzuek, berriz, estatuan, baina hori ez da oztopo, inondik inora, lehiaketara mugatutako merkatua aintzat hartzeko.

5. Gertaeren kalifikazioa

45. Lehia Defendatzeko uztailaren 3ko 15/2007 Legeko 1.1 artikulua debekatu egiten du taldeko akordio, erabaki edo gomendio oro, edo hitzartutako jardunbide edo jakinaren gaineko jardunbide paralelo oro, horien helburua ondorengo bada edo izan badaiteke: merkatu (...) osoan edo zati batean lehia eragozte, murriztea edo faltsutzea”.

46. Jardunbide bat agindu mota horrekin lotu ahal izateko, jardunbide horrek zenbait elementu bildu behar ditu, honako hauek, hain zuzen. Adostasuna izatea, lehiaren aurkako xedea agertzea edo merkatuan eragitea, eta merkatuko lehiari eragitea.

A. Jokabideak Lehia Defendatzeko Legearen 1.1 artikuluekin lotzea.

47. Lehia Defendatzeko uztailaren 3ko 15/2007 Legeko 1.1 artikulua “debekatu egiten du taldeko akordio, erabaki edo gomendio oro, edo hitzartutako jardunbide edo jakinaren gaineko jardunbide paralelo oro, horien helburua ondorengo bada edo izan badaiteke: merkatu (...) osoan edo zati batean lehia eragozte, murriztea edo faltsutzea”.

Hortaz, Lehia Defendatzeko Legearen 1.1 artikulua debekatu egiten du borondateak batera elkartzea, baldin eta elkartze hori lehiaren aurkakoa bada.



48. AROSen eta ARCAINen arteko kontzertazioak bi enpresen arteko lankidetzara eskatuko luke, eta horrek eragingo luke berdintasuneko baldintzak aldatzea “Kirolgunea” proiektuaren lehiaketaren kontratazio publikoko prozesuan.

Koordinazio horri hasiera emateko, informazioa elkartrukatu beharko litzateke lizitazioaren pleguak prestatu aurretik, eta koordinazio horrek indarrean jarraituko luke gutxienez behin-behineko bigarren esleipenera arte (ARCAINEk esku hartuko luke azken horretan).

a. Adostasuna izatea

49. Lehia Defendatzeko Legearen 1.1 artikulua debekatu egiten du borondateak batera elkartzea, baldin eta elkartze hori lehiaren aurkakoa bada. Hori egiaztatzeke, presuntzio-froga bat erabili da, gertaerak zehazteko pleguan frogatutzat jotako gertaeretan oinarrituta.

a'. Presuntzioen froga.

50. Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak presuntzioen frogara jo du, atzemandako zantzuen gainean aplikatzeko.

Argi dago AROSek eta ARCAINEk informazioa elkartrukatu izanak justifika lezakeela 2008an ARCAINEk 2009aren amaieran AROS-VIUDA DE SAINZ ABEEak “Kirolgunea” proiektuaren lizitaziora aurkeztu zuenaren antzeko plano baten jabe izatea, eta justifikazio hori egiaztatzeke presuntzioen frogara jo behar da, ezinbestean.

Espediente honetan AROSek alegatu du konstituzioak onetsitako errugabetasun-presuntzioaren printzipioa urratu dela, prozeduran inplikatu dutelako gertaeretan parte hartu izana egiaztatu gabe.

51. Zehapen-prozeduraren esparruan presuntzioen froga aplikatzeko egokitasunari dagokionez, ezinezkoa da inolako oztoporik jartzea, eta horrela egiaztatu dute Konstituzio Auzitegiak eta Auzitegi



Gorenak⁹. Ildo horretan, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak adierazi du “froga hori erator daitekeela behar bezain sendo eta argiak diren edota behar bezala bat datozen inferentzietatik, edo ezeztatu gabe dauden antzeko egitatezko presuntzioetatik”¹⁰.

Lehiaren Batzorde Nazionalak eta garai bateko Lehiaren Defentsarako Auzitegiak ere ildo bereko epaiak eman zituzten¹¹.

“Lehia-prozeduretan ohikoa izaten da presuntzioen frogara jotzea arau-haustea gertatu dela frogatzeko, batez ere kolusio-jokabideak gertatzen direnean; izan ere, enpresek normalean beren erabakien inguruko zuzeneko frogarik uzten ez badute ere, horien emaitzetatik ondoriozta daiteke horien existentzia”¹².Europako Erkidegoen Justizia Auzitegiak ere erabili du errekurtsor hori¹³.

b'. Espedientean bildutako zantzuak.

52. 2008an, UDALAK ARCAINI esleitu zion “Olatuko” instalazioei buruzko proiektua idazteko eta obra zuzentzeko eskumena.

Aldez aurretik adierazi dugunez, “Kirolgunea” proiektua, ezinbestean, “Olatuko” instalazioarekin osatu behar da. Horregatik, lehiaketa horretan eskaintzak aurkeztu behar zituzten enpresei ARCAINEK landutako “Olatuko” proiektuarekin bat egiteko aukera eman zitzaien.

KIROLGINTZAN da, “Olatuko” proiektua kudeatzeko eginkizunak betez, interesdunei proiektuaren dokumentazioa emateko enpresa arduraduna. CD formatuan banatu zen proiektua .

⁹Abenduaren 17ko 174/85 eta 175/85, urriaren 1eko 150/1987 eta uztailaren 13ko 157/98 KAEak. Ildo beretik, 1985eko uztailaren 26ko eta 1986ko azaroaren 18ko AGEak, eta 1993ko martxoaren 31ko EJAEak, Zur-orea, As. C-89/85.

Martxoaren 27ko 63/2007, 120/1994, 73/1985 eta 1/1987 KAEak (lehen sala). 2002ko uztailaren 15eko AGEa [2002/2320 JB].

¹⁰Irlanda v. Erresuma Batua kasua, 1978ko urtarrilaren 18ko GEEAEa, §161. Berriki, honako kasu hauek kontsulta daitezke: Anguelova v. Bulgaria kasua, 38361/97 errekurtsua, 2002ko ekainaren 12ko GEEAEa; Tahsin Acar v. Turkia kasua, 26307/95 errekurtsua, 2004ko apirilaren 8ko GEEAEa; Nachova eta beste batzuk v. Bulgaria kasua, 43577/98. eta 43579/98. errekurtsuak, 2005eko uztailaren 6ko GEEAEa; Virabyan v. Armenia kasua, 40094/05. errekurtsua, 2012ko urriaren 2ko GEEAEa.

¹¹1988ko uztailaren 4ko eta 13ko, urriaren 25eko eta azaroaren 2ko, 1990eko uztailaren 12ko, 1992ko uztailaren 8ko ebazpenak eta beste batzuk. 2013ko urtarrilaren 4ko ANEa ildo beretik joan da.


¹²LDA, 1998ko irailaren 30a, Gripearen aurkako txertoak, 395/94 espediente.

¹³Besteak beste, Suiker 42/73 gaiari buruzko 1975eko abenduaren 16ko epaian, materia koloratzailei buruzko (54/69 gaia) 1972ko uztailaren 14ko epaian; G. Züchner versus Bayerische Vereinsbank AG 172/80 gaiari buruzko 1981ko

2008ko irailaren 11n, ARCAINEk CD bat eman zion KIROLGINTZANI, “Olatuko” proiektuari buruzko informazioarekin (hemendik aurrera, CD2) (1713. folioa, GZPa).

CD2n informatikoki “Xref\Copia de proyectado.dwg” izendatutako fitxategia jaso da.

Fitxategi horretan, (hemendik aurrera, “Xref fitxategia”) “kirolguneko” estalkietako plano bat jaso da, kota xehatuak barne (481. folioa).



2008ko urriaren 2an, ARCAINEk UDALARI “Olatuari” buruzko proiektuaren inguruko CDaren kopia eman zion (hemendik aurrera CD3) (GZP 1710).

CD horretan bildu da, halaber, informatikoki “Xref\Copia de proyectado.dwg” izendatutako fitxategia, plano berberarekin.



Prozeduran zehar, alderdiek ez dute eztabaidan jarri plano hori egotea ARCAINEK UDALARI eta KIROLGINTZANI emandako informazioan .

53. 2. eta 3. CDetan jasotako planoak 2009ko azaroan AROS-VIUDA DE SAINZ ABEEak “Kirolgunea” proiektuaren lizitazioan aurkeztutako beste plano baten antzekoa da. (CD4) (1488. folioa).

ABEE honen proposamena “Kirolgunea” lehiaketaren esleipenduna izango litzateke (1488. eta 1489. folioak)(GZP 1712).



54. “Olatuko” instalazioei buruzko proiektuarekin KIROLGINTZANEK banatutako CD ofiziala (CD5) ez dator bat ARCAINEK eman zionarekin, eta ez zuen “Xref fitxategia” biltzen (477.-480. folioak).

Besteak beste, KIROLGINTZANEK honako enpresa hauei eman zien CD5 hori: ENRIQUE OTADUY, SL; ACCIONA, SA; ALTUNA Y URIA, SA; JOSÉ ANTONIO OLABARRI CONSTRUCCIONES, CONSTRUCCIONES y PROMOCIONES BALZOLA, SA; TECSA,



EMPRESA CONSTRUCTORA, SA; EXCAVACIONES VIUDA SAINZ, SA (GZP 1712)

55. CDak frogagarri direnez, jarraian taula bat eskainiko dizuegu, bakoitzari ematen zaion izendapen laburtua azaltzeko:

CD1	DGMk aurkeztu zuen salaketan.
CD2	ARCAINEK KIROLGINTZANI aurkeztua.
GZP 1713	Olatuko instalazioei buruzko proiektua biltzen du. "X/ref" planoak biltzen du.
CD3	ARCAINEK UDALARI aurkeztua. Olatuko instalazioei buruzko proiektua biltzen du. "X/ref" planoak biltzen du.
CD4 PCH 1712	AROS-VIUDA DE SAINZ ABEEAK 2009ko lehiaketari aurkeztua. Eskaintzari dagokion proiektua biltzen du
CD5	KIROLGINTZANEK lizitatzailerik ofizialki banatua olatuko instalazioekin batera, "kiroldegia" prestatzeko prozesuan zehar. Olatuko instalazioei buruzko proiektua biltzen du. Ez du "X/ref" planoak biltzen.
CD6	KIROLGINTZANEK DGMRI ofizialki banatua notario aurrean, behin-behineko lehen esleipena egin ondoren.

56. UDALAK eta LEIOA KIROLAKEK ez dute ofizialki banatu "Olatuko" instalazioaren berri ematen duen CDrik (1437. folioa)(GZP 1712).

Gainera adierazi dute "ez dakitela CD horri buruzko kopiak modu ez-ofizialean lortu ote diren" (2. eta 3. CDak) (1437. folioa).

57. Ofizialki DGMK ez du jaso KIROLGINTZANEK "Kirolgunea" proiektuko lehiaketa prestatzeko prozesuan emandako CD5aren kopia (479., 1450. eta 1456. folioak). Alabaina, badu CD bat (CD1), eta horrekin egiten ditu FCC OLABARRI ABEEAK agindutako lanak "Kirolgunea" proiektuaren lehiaketara eskaintza aurkezteko. Salatzailerik adierazi du 2009 abuztuaren 10etik duela CD1 hori, KIROLGINTZANEK egun horretan eman baitzion (GZP 1712).



DGMren CD1ean bildu dira, batetik, karpeta nagusia, “Olatua” proiektuari buruzko planoekin, eta, bestetik, “azpikarpeta lagungarri bat” “Xref fitxategia” biltzen duena. Plano berbera ageri da 2. eta 3. CDetan (124. eta 125. folioak)(GZP 1712).

58. 2010eko apirilaren 26an, DGMk, “Kirolgunea” proiektuaren lehiaketaren esleipenaren emaitza jakinik, eta “fitxategi eztabaidagarria” AROS-VIUDA DE SAINZ ABEE esleipendunak aurkeztutakoaren oso antzekoa zela egiaztatuta, “Olatua” instalazioari buruzko beste CD bat eskatu zion KIROLGINTZANI.

Ofizialki jaso duen CD hori (CD6) 2010eko apirilaren 29an jaso zuen Juan Ramón Manzano Malaxechevarria notarioaren aurrean (101.-111., 1454., 1455. eta 1447. folioak). CD6 KIROLGINTZANek gainerako enpresei ofizialki emandako CD5aren berdina da, eta ez du “Xref fitxategia” biltzen (99., 496., 527., 529., 531., 536., 543., 545. eta 1031.-1034. folioak). GZP 1712

59. ARCAINEk, KIROLGINTZANEk eta UDALAK ez dute zalantzan jarri, beren alegazioetan, ARCAINEk emandako 3. eta 4. CDek “Xref fitxategia” biltzea, karpeta nagusiarekin batera .

60. CD2an (2008an ARCAINEk KIROLGINTZANI aurkeztua) eta CD4an (2009an AROS-VIUDA DE SAINZ ABEEak “Kirolgunea” proiektuko lehiaketari aurkeztua) bildutako planoak oso antzekoak dira. GZP 1710

Alderdiek ez dute antzekotasun hori zalantzan jartzen, baina bai horren arrazoiak.

61. 2008an ARCAINEk (CD2an eta 481. folioan bilduak) eta 2009an AROS-VIUDA DE SAINZ ABEEak (CD4an eta 1488. folioan bilduak) aurkeztutako planoak alderatzean, argi asko ikus dezakegu antzekotasuna, oro har eta xehetasun jakin batzuetan.

Kontuan hartzekoa da 2. eta 3. CDetan bildutako planoaren helburua “Olatuari” buruzko planoak aurkeztea dela (laranjaz koloreztatutako eremua eta eremu horren eskuinaldeko eremu



osoa); grisez nabarmendutako eremua, aldiz (“Olatutik” atera eta eremu angeluzuzen grisean bildu dena, eskuinalderantz), “Kirolgunea” proiektuari dagokio, eta bertan egiaztatu behar da antzekotasuna.

Antzekotasun orokorra aurki daiteke nola eremu orokorretan (igerilekuan, estalkietan eta abar) hala xehetasun espezifikoean (hala nola bi kasuetan sarrerako berdeguneetarako proposatutako forma trapezoidala, sarrerari dagokion lauki gainjarria, igerilekuaren eremuko koloreztatua eta abar).

Antzekotasun bisual horren arabera, txosten teknikoak eskatzeari ekin genion, jarraian azaltzen den moduan.

62. ARCAINen ustez, 2. eta 3. CDetan (ARCAINek aurkeztu zituen 2008an) bildutako “X/Ref” planoak, “Kirolgunea” proiektuari esleitutako gunearen “ahokatze bolumetrikoa edo krokisa” baino ez da, eta baterako gunean egin beharreko jardunak koordinatzeko eta bideragarritasun bolumetrikoa egiaztatzei aukera emango du. Hortaz, planoaren izaera aztertu behar da, alegazioa zuzena ote den edo dokumentua landuagoa ote dagoen ebaluatzeko.

2011ko ekainaren 28an Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialeko dekanok emandako txostena erabakigarria da (1458. eta 1459. folioak).

Txosten horrek berretsi egiten du planoak ahokatze bolumetrikoa dela. Nolanahi ere, zera ondorioztatzen du “zirriborro edo krokis batek baino askoz ere informazio gehiago biltzen duela”. Ildo horretan, honela dio: “ez da ohikoa krokis edo ahokatze bolumetriko baterako kotak zentimetrotan finkatzea, diseinuaren hasierako fasean lortutako zehaztasun-maila txikiaren ondorioz”. Halaber, “ez da ohikoa lizitazio publikoaren eraginpeko proiektuetako kotak zentimetrotan finkatzea (...) beste era batera, grafiatutako kotek eta geziek honako irizpide hau indartzen dute: aztertutako planoak dokumentuaren zatiak dira, eta garatuago dago krokis edo zirriborro soil bat baino. Eta, eskuragarri dagoen informazioa ezkutatzeko



ahalegina egin bada ere, zenbakizko datu eta grafiko horiek erakusten dituen marrazki-geruza ez da ezabatu”.

Honako ondorio irmo hau ere aipatzekoa da: “2. proiektuaren garapenean, gutxienez oinarritzko eta/edo egikaritzeko proiektua landu da”¹⁴.

Horregatik guztiagatik, Lehiaren Euskal Kontseiluak uste du frogatuta dagoela 2008an ARCAINEK UDALARI eta KIROLGINTZANI aurkeztutako planoak ez dela zirriborro edo krokis soil bat, lizitazio baten prestakuntza-fase baterako ohikotzat jotzen ez den dokumentu landuago bat baino.

63. Ikuspegi tekniko eta informatiko batetik, lehenik eta behin aztertu behar da 2.-3. eta 4. CDetan bildutako planoak noiz sortu ziren.

Lehiaren Euskal Kontseiluak AUTOCAD programa erabili du zuzenean, CDetan bildutako planoak aztertzeko.

ARCAINEK KIROLGINTZANI aurkeztutako CD 2an bildutako “X/ref” fitxategia 2008ko ekainaren 5ean sortu zen, eta 2008ko abuztuaren 13an aldatu zen azken aldiz.

CD 4an bildutako planoetarako (AROS-VIUDA DE SAINZ ABEEAK aurkeztu zuen 2009ko azaroan 2009ko otsailean emandako kontratazio-espeditante bidez hasitako lizitaziora), berriz, sortze-data desberdinak eman dira, baina guztiak ere 2008ko uztailaren 4tik 2008ko azaroaren 18ra bitartekoak. Ia guztiak 2009ko azaroaren 2an aldatu ziren azken aldiz.

64. Txosten tekniko informatikoak erabili dira CD 2ko planoaren (2008an ARCAINEK KIROLGINTZANI aurkeztua) eta CD 4aren (2009ko lehiaketan AROS-VIUDA DE SAINZ ABEEAK aurkeztua) arteko antzekotasuna aztertzeko.

Gai horren harira alderdi batek txostena aurkeztu du salaketarekin batera (113.-118. folioak), eta Lehiaren Defentsarako Euskal

¹⁴ Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialaren txostenaren arabera, 2. proiektua “x/ref” fitxategian bildutako planoak da, eta fitxategi horren barruan hartu da 2008an ARCAINEK UDALARI eta KIROLGINTZANI aurkeztutako planoak.



Kontseiluak bi txosten independente aurkeztu ditu (1030.-1033. folioak eta 1487.bis-1487.quater folioak).

Horietatik, honako bi ondorio hauek ateratzen dira:

- batetik, bi CDetan bildutako fitxategietako geruza batzuetako izen zati batzuk berdinak dira¹⁵, eta bestetik,
- zenbait fitxategitako “karaktere-kateak” bat datoz (H:\PROJECTES-CONCURSOS\Leioa).

Bi egiaztapen horien eraginez, bi txostenetatik ateratako ondorioak berdintsuak dira. Txosten independenteak dioenez, “antzekotasun horien arrazoia izan daiteke bi fitxategietako bat bestearen kopian oinarritu izana, fitxategietako batek bestetik zenbait elementu zuzenean hartu izana, edota prozesuaren une batean talde berberak bi fitxategiak editatu izana”.

65. Ibilbide hori ikusirik, dokumentu horien jatorri komuna zein den aztertu behar da.

PUJOL enpresak parte hartu zuen AROS-VIUDA SAINZ ABEEak “Kirolgunea” proiektuko lehiaketara aurkeztutako proiektua lantzeko prozesuan (1549. eta 1590. folioak). Zehazkiago, Pinosolo “Kirolguneko” planoak diseinatu zituen, ondoren esleipendun atera zen proiektuaren barruan aurkezteko.

2008. urteaz geroztik PUJOLEk AROSi aurkeztutako faktura askoren kontzeptua honako hau da: “Leioako Pinosolo lehiaketa. Azken ordainsarien konturako ordainketa”. 2008ko uztailaren 23ko (1692. folioa), 2008ko abuztuaren 31ko (1691. folioa), 2008ko irailaren 30eko (1690. folioa), 2008ko urriaren 30eko (1689. folioa) eta 2008ko azaroaren 28ko (1688. folioa) datak dituzte faktura horiek.

2011ko apirilaren 27az geroztik bakarrik gauzatu zen PUJOLen eta ABEEaren arteko kontratu-harremana (1693.-1701. folioak).

¹⁵Honako geruza hauetan ageri dira izen berberak (1487. bis-1487. quater):



2011ko maiatzaren 31n (1687. folioa) ABEEari aurkeztutako fakturaren kontzeptua “Leioako Pinosolo kirolgune berria. Lekualdatze-gastuak” da, eta azkenik, 2011ko ekainaren 3ko fakturaren kontzeptua “Pinosolo kirolguneako arkitekturako oinarrizko proiektua”.

Lizitazioaren aurretik AROSi aurkeztutako fakturetako zenbatekoen (93.960 euro) eta ondoren AROS-VIUDA DE SAINZ ABEEari aurkeztutako (479., 1450. eta 1456. folioak)(846.296 euro) arteko aldea oso esanguratsua da.

PUJOLEk AROSi bost faktura egin zizkion 2009ko lizitazioa argitaratu baino urtebete baino lehenago, eta horrek agerian uzten du 2008tik, eta beraz lizitazioaren ezaugarriak jendaurrean jarri aurretik, AROS lizitazioarekin zerikusia zuten lanak eskatzen ari zela.

2008ko irailean eta urrian, ARCAINEk 2. eta 3. CDak aurkeztu zizkien UDALARI eta KIROLGINTZANI, plano eta guzti .

2011ko urriaren 5ean, PUJOLEk erantzuna eman zion Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak egindako informazio-eskaerari. 2. eta 3. CDetan bildutako plana hark egin ote zuen galdetuta, honako hau erantzun zuen: “Guk ez dugu egin komunikazioari erantsitako plana, baina ohartu garenez, estalkiko zati baten diseinuak antza dauka guk AROSEkin elkarlanean egindako lanaren esparruan egindako zenbait planorekin”.

Gainera, “bere ordenagailuan Leioako udalerrian garatu diren, garatzen ari diren edo garatuko diren proiektuei dagokienez “PROJECTES-CONCURSOS” izena daraman karpetarik ote duen galdetuta”, honako hau erantzun du: “Gure fitxategi-zerbitzari zaharrean bagenuen PROJECTES-CONCURSOS izeneko azpidirektoria, eta lehiaketekin, Leioakoak barne, zerikusia zuen guztia biltzeko erabiltzen genuen” (1509. eta 1702. folioak).



66. 2012ko martxoaren 23an, LEIOA KIROLAKeko lehendakariak (Leioako alkatea), 2012ko martxoaren 12an UDALAK eta LEIOA KIROLAKek jasotako Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuaren eskaerari erantzunez, honako hau adierazi zuen (2071. folioa):

“*Xreflcopia del proyectado.dwg* fitxategian gordetako proiektua Olatu artifizialeko proiektuari lotzen zaion soilik, proiektuaren barneko CDaren zati delako. Horri dagokionez, udal-zerbitzuetan ez dago jasota ARCAINi edo beste edozein erakunderi CD horren edo hura osatzen duten fitxategien kopiarik eman zaionik”.

“...hain zuzen ere, proiektua idazteko enpresa esleipendun ARCAIN izan zen Leioako UDALaren esku jarri zuena, zegokion CDarekin batera”

“...hortaz, erakunde ehorri ez da erreferentziazko dokumentuaren sortzaile edo egile izan, dokumentuaren hartzaile baizik, eta hori ARCAINi agindutako Pinosoloko olatu artifizialeko proiektuaren esparruan”

c'. Espedientean bildutako zantzuen balioespena

67. Espediente honen eraginpeko kasuan, jurisprudentzia-doktrinaren aplikazioak honako testuinguru honetan du abiapuntua: UDALAK Pinosolo-Torresolo izeneko kirol-eremu berri bat ezarri du Leioako udalerrian, eta bereziki “2009ko lizitazioaren” esparruan.

Espedientetik honako zantzu hauek guztiak eratortzen dira:

- 2008an, AROSek PUJOLi agindu zion “Kirolgunea” proiektuko lanak egitea. Agindu horren ondorioz, 2008an PUJOLEk bost faktura bidali zizkion AROSi, “Leioako Pinosolo lehiaketa” kontzeptuarekin.

- 2008. urtean (iraila) ARCAINEK KIROLGINTZANI eta UDALARI eman zien “Olatu artifiziala” instalazioko proiektuari buruzko CDa. 2. eta 3. CD horietan “x/ref” fitxategia dago jasota.



- 2009ko abuztuan, LEIOA KIROLAKek “Kirolgunea” proiektua idazteko, obra zuzentzeko eta egikaritzeko lizitazioa deitu zuen, eta 2009ko azaroan, AROSEK eta VIUDA DE SAINZEK, ABEE eratu ondoren, “Kirolgunea” proiektuari dagokionez LEIOA KIROLAKek deitutako lizitaziora aurkeztu ziren. PUJOLEK egin zuen AROS-VIUDA DE SAINZ ABEEak aurkeztutako proiektua.
- CD2an (2008an ARCAINEK KIROLGINTZANI aurkeztua) eta CD4an (2009an AROS-VIUDA DE SAINZ ABEEak aurkeztua) bildutako planoak oso antzekoak dira. 2008an ARCAINEK (CD2, 481. folioa) eta 2009an AROS-VIUDA DE SAINZ ABEEak (CD4, 1488. folioa) aurkeztutako planoak ikusi eta alderatzean berehala ohartzen gara oso antzekoak direla, oro har eta xehetasun jakin batzuetan, alderdien arteko kontzertazioaren erakusgarri.
- CD horietan bildutako fitxategietako geruza batzuetako izen zati batzuk berdinak dira¹⁶.
- Bi CD horietan bildutako fitxategi batzuetako “karaktere-kateak” berdinak dira (H:\PROJECTES-CONCURSOS\Leioa\).
- AROS-VIUDA DE SAINZ ABEEak “Kirolgunea” proiektuko lehiaketara aurkeztutako CD 4aren barruan bildutako planoan, sortze-data (2008ko uztailetik azarora bitartekoa) lehiaketa ireki zeneko data (2009ko abuztua) baino lehenagokoa da, baita kontratazio-espeditentea hasi zenekoa (2009ko otsaila) baino lehenagokoa ere.
- PUJOLEn fitxategi-zerbitzari zaharrear, PROJECTES-CONCURSOS izeneko azpidirektoria zegoen, eta lehiaketekin, Leioakoak barne, zerikusia zuten guztia biltzeko erabiltzen zuten.
- 2011. urtean, behin ABEEa behin betiko esleipendun atera ondoren, PUJOLEK kontratu bat sinatu zuen AROS-VIUDA DE SAINZ ABEEarekin.

¹⁶Honako hauek dira izen berberak dituzten geruzak (1487. bis-1487. quater folioak):

- EST_PRO - EST_REF - FIP_PRO - FIP_VID - Z_AUX - Z_EDIFICACION - Z_PAV - Z_plaza - Z_SIMBOLOGIA - Z_TRA_251 - Z_TRA_253 - Z_TRA_254 - Z_TRA_255 - Z_TXT - Z_VEG - Z_VIAL



- Pinosolo-Torresolo eremuan sustatutako jardun guztietan, AROS eta ARCAIN enpresek hartu dute parte.

PINOSOLO-TORRESOLO EREMUAN SUSTATUTAKO JARDUN PUBLIKOAK			
Instalazioa	Aldez aurreko zereginen enpresa arduraduna	Proiektua egiteko enpresa arduraduna	Esleipena Egikaritzeko enpresa arduraduna
Pinosolo "Kirolgunea"	ARCAIN 2007	AROS 2011	AROS 2011
"Olatu artifiziala" instalazioa	Ez dago	ARCAIN 2008	Ez da deitu edo esleitu.
"Kanpoaldeko jolas- eta kirol-eremua"	Ez dago	ARCAIN	AROS

d'. Gertaeren eta arrazoitutako zantzuen arteko kausalitate-erlazioa.

68. Espedientean egiaztatutako gertaeren eta zantzuen arteko kausalitate-erlazioa honela azalduko litzateke:

- AROSEK PUJOL kontratatu zuen "Kirolgunea" Pinosolo kiroldegiko proiektuaren inguruko lanak egiteko, LEIOA KIROLAKek 2008ko lizitazioa deitu baino urte eta erdi lehenago .

- PUJOLEK ziurtatzen du ez duela ARCAINEkin inolako harremanik eduki, eta ARCAINEK ez du hori zalantzan jarri.

- PUJOLEK eduki duen fitxategi-karpeta bat eta fitxategi eztabaidagarriaren ibilbidearen karpeta berdinak dira (H:\PROJECTES-CONSURSOS\Leioa).

- ARCAINEK bazuen "x/ref" fitxategia, hain zuzen ere kiroldegiko estalkiei buruzko plana biltzen zuena; izan ere, KIROLGINTZANI eta UDALARI eman zien "Olatu artifiziala" instalazioko proiektua



biltzen duten 2. eta 3. CDetan. Fitxategi hori AROS-VIUDA DE SAINZ ABEEak aurkeztutako CD4an bildutakoaren antzekoa da. Aritu informatikoen txostenetan, sortze-datetan eta ebidentzia bisual soilean aurkitu dira antzekotasunak.

- ARCAIN “X/ref fitxategiaren” jabe izatea azaltzeko funtsezko eta arrazoizko modu logiko eta arrazoitu bakarra da ARCAINen eta AROSen artean informazio-trukea gertatu izana. Gertaera horiek ezin daitezke halabeharrez gertatu. Aitzitik, arrazoizko azalpen egoki bat eman behar da, eta Lehiaren Euskal Kontseilu honek informazio-truke horretan aurkitu du bakarrik.

e'. Alderdiek zantzuak azaltzeko alegatutako beste arrazoi batzuk.

69. Prozeduran zehar, alderdiak ahalegindu dira informazio-trukearen ondorioa alde batera uzten, baina Lehiaren Euskal Kontseiluak ezin du inolako arrazoibiderik erabili Lehiaren Defentsarako Euskal Kontseiluak bere ebazpen-proposamenaren bitartez atera duen ondorioa baztertzeko, eta Lehiaren Euskal Kontseiluak hori berretsi nahi du ebazpen honen bitartez.

Ildo horretan, alderdiek aurkeztutako alegazioak aztertuko ditugu jarraian:

70. Batetik, AROSek eta ARCAINek adierazi dute CD2an eta CD3an bildutako planoak “zirriborro, krokis, egokitzapen bolumetriko edo prestakuntza-lan” bat dela.

Zehapen-espeditentean, Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialak emandako txostena dago, eta alderdiek ez dute txosten hori zalantzan jarri. Txosten horrek dioenez, plano hori ez da, inondik inora, hasierako plano bat, eta, alderantziz, “...nahikoa garatua dago, gutxienez oinarrizko eta/edo egikaritzeko proiektua eginda baitago”.



71. AROSek aipatu du planoetan atzemandako antzekotasunak arkitektura-parametro eta diseinu-programa berberetatik erator litezkeela. Baina iritzi hori ezin daiteke aintzat hartu Elkargo profesionalaren aldez aurretik aipatutako txostenari jarraiki.

72. AROSek beste hipotesi alternatibo bat aipatu du: litekeena da PUJOL arkitektura-estudioak antzeko planoak egin izana antzeko beste kiroldegi-proiektu baterako, eta ARCAINEk plano horiek eskuratu izana. AROSen beste hipotesi baten arabera, PUJOLEk web plataformaren batean jar zitzakeen planoak, ARCAINEk “Olatua” lehiaketarako proiektua egin baino lehen .

ARCAINen alegazioek ezeztatu dituzte argudio horiek; esan dutenez, UDALA da fitxategiaren jatorria. Sensu contrario, ezin daiteke ulertu jatorria AROSek ezarritakoa izatea.

73. ARCAINEk planteatu du dokumentuaren ustezko jatorria Udalean egon litekeela, eta horren harira adierazi behar da ez dela egiaztatu dokumentuaren entregari buruzko nahitaezko erregistroa.

Gainera, 2007an ARCAINEk Torresolo-Pinosolo eremuko lehiaketen prestakuntzari buruz egindako txostenean, UDALAK emandako dokumentuen zerrenda jaso da, eta plano hori ez dago bertan aurkeztutakoen artean (1432. folioa).

Azkenik, LEIOA KIROLAKeko lehendakariak-alkateak irmotasunez ezeztatu du plano horiek UDALaren eskutik jaso izana, eta ARCAINen eskutik jaso dituela erantsi du, ongi frogatuta dagoenez (2071. folioa).

74. AROSek adierazi du planoek berdin-berdinak izan beharko luketela, eta antzekotasun soiletik ez dagoela inolako ondoriorik ateratzerik. Gainera, PUJOLEk esanbidez onartu duenez, “estalkiaren zati baten diseinuak badu nolabaiteko antza guk AROSekin egindako lanaren esparruan egindako planoekin”. Hau da, 2. eta 3. CDetan bildutako planoak eta 4. CDan bildutakoa antzekoak dira (1509. folioa).



f'. Lehiaren Euskal Kontseiluaren ustea

75. Enpresek arau-haustea eragin duten gertaeretan parte hartu ote duten egiaztatzeko, presuntzioen frogatik egin da. Froga hori aplikatu ahal izateko, behar-beharrezkoa da, konstituzio-jurisprudentziak ezarri duen bezala, objektiboki egiaztatutako oinarritzko gertaeretatik abiatzea, eta gertaera horietatik abiatutako inferentzia logikoa, arrazoizkoa eta arrazoitua izatea.

76. Pleguak frogatutzat jo du ARCAINEK KIROLGINTZANI CD bat eman izana, eta CD horretan bildutako fitxategi batean, "Kirolgunea" proiektuari buruzko plano bat egotea "(ikus GZPko zortzigarren gertaera frogatua). Frogatutzat jotzen du, halaber, ARCAINEN CDan bildutako planoaren eta AROSEK "Kirolgunea" proiektuaren lizitaziorako aurkeztutakoaren artean "antzekotasunak" badaudela (ikus GZPko hamalagarren gertaera frogatua). Frogatutzat jotzen da antzekotasun informatikoak izatea, zenbait "geruza" eta zenbait "ibilbide" bat datozelako, eta horrek agerian uzten du eta frogatu egiten du ARCAINEK aurkeztutako fitxategiaren jatorria PUJOLEN direktorioetan dagoela (ikus GZPko hamabosgarren gertaera frogatua).

Espainiako Konstituzioaren 24. artikuluen eta Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren 6. artikuluen arabera, inferentziak zuzenean abiatu behar du gertaerak zehazteko pleguan frogatutako gertaeretatik.

Frogatutako gertaerek behar adinako zantzuak eskaintzen dituzte ondorioztatzeko, errugabetasun-presuntzioaren eskubidearen estandarrak errespetatuz, AROSEK eta ARCAINEK informazioa elkartrukatu izana dela gertaera horien eragile bakarra.

AROSen eta ARCAINEN arteko kontzertazioak esan nahi du bi enpresen arteko lankidetzak izan dela, berdintasunezko baldintzak aldatzeko "Kirolgunea" proiektuaren lehiaketaren kontratazio publikoko prozesuan.



Koordinazio horri hasiera emateko, informazioa elkartrukatu dute lizitazioaren pleguak prestatu aurretik, eta koordinazio horrek indarrean jarraitu du gutxienez behin-behineko bigarren esleipena gauzatu arte (ARCAINEk esku hartu du horretan).

Kontuan hartzekoa da kontzertazioa ez dela zuzenean lehiakide diren enpresen artean planteatu, lizitazioan ARCAIN UDALAREN eta LEIOA KIROLAKEN enpresa aholkulari gisa aurkeztu delako .

Gertaera horrek ez du galarazten jardunbide hori 1.1 artikulua baitan biltzea, baina kontuan hartu beharko da jokabidearen larritasuna zehazteko.

b. Xedearengatiko arau-haustek eta merkatuan dituzten ondorioak.

77.1.1 artikulua merkatuan disfuntzioak sortzeko helburua duten edo ondorio hori eragiten duten akordioak ditu hizpide. Horregatik, Lehiaren Defentsarako Auzitegiak eta egungo Lehiaren Batzorde Nazionalak errepikatu dute hiru jokabide mota koka daitezkeela 1. artikulua barruan, merkatuko lehia eragozteari, murrizteari edo faltsutzeari dagokionez: helburu hori dutenak (lortu edo ez), ondorio hori sortzen dutenak (asmorik ez badute ere) edo sortu ahal izan dutenak (nahiz eta ez bera bilatu).

Lehen atalean sartzen dira “beren izaerarengatik” lehia murrizten dutenak. Lehia murrizteko xede bakarra duten kasu horietan, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak ezin eztabaidatuzko eran jokatu du lehiaren Europako zuzenbidea garatzen hasi zenetik. Haren ustez, “ez da beharrezkoa akordioaren ondorio zehatzak kontuan hartzea, baldin eta argi badago lehia eragozteari, murrizteari edo faltsutzeari dela akordioaren helburu bakarra”¹⁷.

¹⁷ 1966ko uztailaren 13ko EEJAEa, As. 56/64 Costen Grundig.



Jardunbide horietan, alderdien borondateak ezin du inolako onurarik ekarri gizartearentzat, merkatuarentzat edo kontsumitzaileentzat. Jardunbide horiek ezin daitezke interpretatu 1. artikuluko hirugarren paragrafoko salbuespenak aplika ote daitezkeen aztertzeko. Lehia norberaren onuran aldatzea da jokabide horren helburu bakarra, inolako kanpo-eragin positiborik planteatu gabe. Hard core izena daramate jardunbide horiek, eta kalifikazio larriena jaso dute antolamenduaren eta jurisprudentziaren aldetik.

Auzitegi Gorenaren jurisprudentzia-doktrinak ere egiten du helburuagatiko eta ondorioagatiko murrizteen arteko bereizketa; lehenengoen kasuan, halere, ez da behar haiek merkatuan dituzten ondorioen azterketa potentzial edo egungo bat. Esanguratsuak dira, besteak beste, Auzitegi Gorenaren epai hauek: 2007ko otsailaren 14koa (2007\634 JB), 2008ko urriaren 15ekoa (2008\5734 JB) eta 2010eko ekainaren 1ekoa (2010\5465 JB).

Baieztapen horietatik ez da ondorioztatzen azterketaren eraginpeko jardunbidean ez dela ondoriorik egiaztatu. Bakarrik esaten da arau-haustearen tipifikaziorako ez dela beharrezkoa horrelakorik izatea eta beraz kuantifikatzea.

78. Lege- eta jurisprudentzia-kontsiderazio horiek kontuan hartuz, zehapen-prozedura honen eraginpeko enpresek errepikatutako ideia bat baztertu behar da. Horren arabera, lehiaren aurkako ondoriorik ez izateak administrazioko arau-hausterik ez izatea dakar berekin, lehiari buruzko araudia hausteagatik.

Ondorioak gertatu edo ez, lehenik eta behin azpimarratzekoa da jardunbidetik lehiarako ondorio negatiboak erator daitezkeela bakarrik. Hala, kontzertazioaren helburua hautagai guztietatik hautagai bakarra hautatzea da, baina horrek ez du bermatzen hori hautagai onena izatea. Helburu horren eraginez, lehia askea aldatzen da lizitatzaille baten mesedetan, baina litekeena da onena ez izatea kontratazio publikoko prozesuetan babestu beharreko eraginkortasun eta efikaziako interes orokorrerako. Hortaz, jokabide



hori “helburuagatiko arau-hauste” bat izango litzateke, lehiaren zuzenbideak darabilen terminologiaren arabera, eta bere izaerarengatik bakarrik debekatu behar da, salbuesteko aukerarik gabe.

Azpimarratzekoa da, halaber, inplikaturako enpresek egin beharreko guztia egin zutela jardunbideak merkatuan ondorioak eduki zitzan lortzeko. Hortaz, jokabidea egokia da, lehiaren ondorio negatiboak sor ditzakeen neurrian. Kontzertazioan parte hartzen duten enpresetatik kanpo hartu dute “kirolgunea” proiektua ez gauzatzeko erabakia, eta horrek bakarrik eragotzi du agindutako obra martxan jartzea. Ondorioak arintzen dira alderdien borondatek aparte erabaki horrengatik, baina ez dira desagertzen. Hala, gutxienez, kontratua suntsiarazteko erabakitik zenbait gastu eratorri dira egoera horren harira, eta horrek interes publikoko inplikazioak ekar ditzake berekin.

c. Merkatuan lehia faltsutzea

79. Lehia Defendatzeko Legearen 1.1 artikulua eskatzen du merkatuko lehia faltsutzea.

ARCAINEk eta AROSEk lizitazioaren merkatuan elkartrukatutako informazioa estrategikoa da argi eta garbi, eta ezin daiteke nondik inora alderatu lizitatuzaileen eta erakunde publikoetako zerbitzu tekniko eta aholkularien artean eman daitezkeen harremanekin, lizitatutako proiektuaren ezaugarriak hobeto ulertzeko. Elkartrukatutako informazioaren izaerari eta biek lizitazioan betetzen duten zereginari erantzen badiogu lehiaketa publikoen lizitazioetan isilpekotasunaren bermea garrantzizkoa dela, honako ondorio hau ateratzen dugu ezinbestean: objektiboki, kontzertazioak lehia faltsutzea ekar dezake berekin, eta horrela lehiaketaren garapenean eta beraz interes publikoan eragin negatiboa eduki.

“Kirolgunea” proiektuko lehiaketaren aurretik informazio-trukea gertatu izanak baliorik gabe utziko luke, nolana ere, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legeak hautagaien zat ezarritako tratu-berdintasuneko eta diskriminaziorik ezako bermea. Gainera,



esleipenean ez litzateke inolako objektibotasunik eta inpartzialtasunik izango. Arrazoi horiengatik guztiengatik, merkatu horretan lehia askea faltsutu da.

ARCAINen eta (aholkulari gisa, 2009ko lehiaketa prestatzeko eta eskaintzak balioesteko ardura hartu zuen) eta AROSen (ABEE esleipenduneko kidea) arteko bat etortzeak larriki aldatu ditu bederatzi lizitatzailen arteko berdintasun-baldintzak, eta AROS abantaila lehiakorreko posizioan jarri du, merkatuan sartzeko lehia ezabatu duelako.

d. Ondorioa

80. ARCAIN eta AROS enpresak ez dira benetako lehiakideak merkatu berean, eta gainera ezin daitezke lehiakide izan, baina biek ere merkatuan eragiteko gaitasuna badute. Hortaz, , bi enpresen arteko informazio-trukearen xedea Pinosolo “kirolgunearen” lizitazioa aldatzea da, eta beraz, Lehia Defendatzeko Legearen 1.1 artikulua haustea dakar berekin¹⁸.

Informazio-trukeak merkatuko lehia faltsutzea, eragozteak edo murriztea du helburutzat, eta objektiboki badu gaitasunik hori egiteko. Hortaz, ez da beharrezkoa jokabide horrek ondorioak badituela frogatzea¹⁹. Nolanahi ere, egiaztatu da ondorio horiek izan direla. AROSek lizitazioa irabazi du hasiera batetik akastuna zen prozesu batean, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legean ezarritako bermeak ez direlako errespetatu, eta esleipenetik ondorio ekonomikoak eratorri dira, nahiz eta kontratua suntsiarazteko aukera izan.

15/2007 Legearen 62.3 artikulua honela azaltzen ditu arau-hauste larriak: “kolusiozko jokaerak aurrera eramatea lege honen 1.1 artikuluan aurreikusitako moduan, baldin eta jokaera horiek elkarri lehia egiten ez dioten benetako enpresa edo enpresa potentzialen

¹⁸2008ko uztailaren 8ko LAEEa As. T-99/04, AC-Treuhand AG.

¹⁹Ikus Lehiaren Batzorde Nazionalaren ebazpena (S/0086/08 espedientea. Peluquería Profesional). Zuzenbideko Zortzigarren Oinarria.



arteko akordio, erabaki edo gomendio kolektiboak, hitzartutako praktikak edo nahita paraleloak badira”.

Horregatik, AROS eta ARCAIN 1.1 artikulua arau-hauste larri baten errudun direla ebatzi da, eta gainera Lehia Defendatzeko Legearen 1.3 artikuluko salbuespena aplikatzeko aukerarik ez dago.

AROSek jokabidearen garrantzia txikiagotzeko egindako alegazioa onartezina da (Lehia Defendatzeko Legearen 5. artikulua), alegazioa onartuz Lehiaren Euskal Kontseiluak garrantzizko merkatuari buruz emandako definizioaren arabera.

B. Interes publikoari eragiten dion lehia desleiala.

81. 2013ko martxoaren 27an, Lehiaren Euskal Batzordeak kalifikazio berriaren inguruko erabakia hartu zuen Lehia Defendatzeko Legearen 51. artikulua aplikatuz. Honela dio Legeak: “Lehiaren Batzorde Nazionalaren Kontseiluaren ustez, Ikerketen Zuzendaritzak egindako proposamenean Kontseiluari aurkeztu zaion auziari emandako kalifikazioa ez baldin bada beharbada egokia, beste kalifikazio bat egin eta interesatuei eta Zuzendaritzari aurkeztuko die, hamabost eguneko epean egoki iritzitako alegazioak egin ditzaten”. Kalifikazio berriaren inguruko erabakiak aditzera ematen duenez, ebazpen-proposamenean bildutako gertaerek “15/2007 Legearen 3. artikulua arau-haustea ere ekar dezakete berekin, egintza desleialengatiko lehia askea faltsutzea ekar dezaketelako berekin”. Erabaki horretan nahitaezko motibazioa dago jasota, eta horri esker alderdiek aukera badute administrazio-erabakiaren arrazoi berri izateko, eta horrela zirkunstantzia berri horren aurrean defendatzeko, alegazio berriak aurkeztuz.

82. 15/2007 Legearen 3. artikuluari jarraiki, lehia askea faltsu daiteke egintza desleialengatik, eta lehiaren agintaritzak azter ditzake egintza horiek “Legeak debekatutako jokabideetarako ezarritakoaren arabera”, betiere egintza horiek “interes publikoari kalte egiten badiote”.



83. Une honetan aztertu behar da interes publikoari kalte egiten dion lehia desleiala gertaerak zehazteko pleguan zuzenean frogatutzat jotako gertaerei aplikatu behar ote zaien.

Horri dagokionez, Lehiaren Batzorde Nazionalak hiru baldintza jartzen ditu Lehia Defendatzeko Legearen 3. artikulua aplikatzeko ²⁰:

- Leia desleialtzat jo daitekeen portaera bat izatea, eta horretarako Lehia Desleialari buruzko 3/1991 Legea jo beharko da.
- Portaera horrek interes publikoari, hau da, merkatuko lehia askeari kalte egitea, Lehia Defendatzeko Legeak babestu beharreko ondasun juridikotzat jotzen baita.
- Eragina nabarmena izatea edo, gauza bera dena, merkatuaren funtzionamendua arautzen duten mekanismoetan asaldura larria eragiteko bestekoa izatea.

a. Enpresen portaera lehia desleialeko egintza gisa.

84. Lehia Desleialari buruzko urtarrilaren 10eko 3/1991 Legearen 15.2 artikulua agintzen duenez, portaera bat desleiala izango da baldin eta lehia-jarduera arautzen duten arau juridikoak hausten badira.

85. Gure kasuan, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legeak arautzen du lehia-jarduera, eta zehazkiago 1. eta 129.2 artikuluek.

Administrazio Publikoen kontratazio-alorreko legeriak lehia-jarduera arautzen du, administrazioaren ondasun eta zerbitzuak merkatuan hornitzeko jarduerari mugak ezartzen dizkiolako, eta horrela berdintasunezko esparru bat ezartzen du Administrazioari ondasun eta zerbitzuak hornitzen dizkiotenen artean.

²⁰ Ikus, guztien adierazgarri gisa, 1991ko urriaren 9ko Ebazpena, A 13/91 espedientea, SUVECA.



Gertaeren unean indarrean zegoen 30/2007 Legearekin dute zerikusia aginduek²¹.Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 1. artikulua arauaren “xedea eta helburua” ezartzen du:

“Sektore publikoan egiten diren kontratuak arautzea da Lege honen xedea. Legeak, arauketa horren bidez, bermatu nahi du, batetik, kontratazioa printzipio hauen arabera gauzatuko dela: lizitazioetan parte hartzeko askatasun-printzipioa, **prozeduren gardentasunaren eta publizitatearen printzipioak eta lehiakideen arteko diskriminaziorik ezaren eta tratu-berdintasunaren** printzipioak; bestetik, aurrekontuaren egonkortasunaren eta gastuaren kontrolaren helburuari lotuta, ziurtatu nahi du obrak egiteko, ondasunak eskuratzeko eta zerbitzuak kontratatzeko diru-funtsak eraginkortasunez erabiliko direla, dauden premiak alde aurretik definituz, **lehia askea babestuz eta ekonomiaren aldetik abantailatsuen den eskaintza hautatuz.**

30/2007 Legearen 129.2 artikulua agintzen duenez, interesdunen proposamenek isilpekoak behar dute, eta lizitazio publikoa egin arte isilpean gordeko direla bermatzeko neurriak hartu behar dira. Isilpean gordetzen direla bermatzeko, proposamenak ongi itxitako eta zigilatutako gutunazaletan bidaltzen dira. Isilpean ez gordetzeak kalte egin diezaioke lizitazaitzaileen arteko berdintasun-printzipioari kontratu-prozesuan. Izan ere, lehiaketa batean eskaintzak isilpean gordez, abantaila lehiakorreko egoerak saihestu nahi dira.

Hala, Galiziako Auzitegi Gorenak honako hau adierazi du 2002ko ekainaren 12ko Epaian:

“Administrazioak kontratista pribatuak hautatzean, lizitazio publikoko formuletara jo du, oro har, partikularren arteko **BERDINTASUNA** bermatzeko, eta deiaren egileak, lehiaren bitartez, interes publikoarentzat onuragarrienak diren formulak lortzeko. Formula horiek, proposamenen isilpekotasun- eta lizitazio-prozedurak alde batera utzita, esleipenaren

²¹ Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginaren 1. eta 145. artikuluetan jaso dira agindu horiek.



automatismo handiagoan edo txikiagoan eta esleipena amaitzeko prozeduraren xehetasunetan aldatu dira”.

Lizitazioak garatzeko prozeduraren xehetasun-mailak administratuen eskubideak bermatu nahi ditu eta interes orokorra babestu, administrazioari aukerarik onuragarriena objektibotasunez hautatzeko aukera emanez.

Lizitazio-prozeduraren faseek (hala nola proposamena eta eskaintza) bereizita egon behar dute, gaiak bereizita ebaluatu ahal izateko, alderdi bakoitzaren balioespena baldintzatu gabe. Sistema horien guztien helburua eskaintza isilpean gordetzen dela bermatzea da. Berme hori hautaketa-prozeduren berdintasunaren eta garbitasunaren zerbitzuan daude. Berdintasun eta garbitasun horrek errazten dute esleipena eskaintzarik onuragarrienari eta beraz lehiarako onena denari ematea.

Ilido horretan, 2011ko apirilaren 1ean Madrilgo Auzitegi Gorenaren Epaian egindako baieztapenak nabarmendu behar dira:

“Europar Batasunaren administrazio-kontratazioari buruzko Zuzentarauak eredu izan dira herrialde honetan Administrazio Publikoen kontratazioari buruzko hainbat testu sortzeko, eta bereziki kasu honi dagokion 2000. urteko Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategina sortzeko. Ondo jakina denez, Zuzentaru horien **helburu nagusietako bat kontratuak esleitzeko eta prestatzeko fasean, gardentasuna, diskriminaziorik eza eta objektibotasuna defendatzea da**, eta hori, **administrazio-kontratazioan ere kontratazio publikora jotzen dutenen artean lehia askea babesteko, pribilegio guztiak galaraziz, barne-merkatuko lehia askearen postulatu** **Europar Batasunaren oinarrietako bat delako**, herrialde kideen arteko integrazio ekonomikoa baldintza-berdintasunean egitea ahalbidetzen duen neurrian, operadore ekonomikoetako inori inolako pribilegiarik eman gabe, nahiz eta pribilegio horiek ustezko interes publiko edo orokorretan oinarritu nahi dituzten, gehienetan, ordea, dagokion administrazio-kontratuaren



botere esleitzailleekin era bateko edo besteko harremana duten eragile ekonomiko jakin batzuen aldeko tratua ezkututzen duten arren.

Hizpide dugun objektibotasuna eta diskriminaziorik eza lizitatzailleen arteko lehia askeko edo diskriminaziorik ezako printzipioaren bitartez gauzatzen da, eta printzipio hori benetakoa eta eraginkorra izateko, administrazio-kontratazioarekin zerikusia duten proposamenek isilpekoak izan behar dute eta eredu jakin bati jarraitu behar diote, esleitzeko erabilitako modua lehiaketa edo enkantea izan. Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginaren 79.1 artikulua honako hau ezartzen du horren harira: «Proposamenak isilpekoak izango dira, eta lizitazio publikoa egin arte isilpean gordeko direla bermatzeko neurriak hartu behar dira. Administrazio-klausula zehatzen pleguan ezarritako eredura egokitu behar dira. Proposamenak aurkezte hutsak, bestalde, aipatutako baldintzen eduki osoari, enpresaburuak, bat ere salbuespenik gabe, baldintzarik gabeko onarpena ematen diola adierazten du.

Behin batean, Auzitegiek lizitatzaille bat baztertu zuten, erratuta eskaintza ekonomikoa behar ez zen gutunazalean sartu zuelako, hutsegite horrekin proposamenak isilpean gordetzeko betebeharra urratu baitzuen²². Hori aintzat hartuta, kasu honetan isilpekotasun-betebeharra urratu izana are argiago legoke, kontuan hartuta enpresa batek, administrazio lizitatzaillearentzako kontsultoretza- eta aholkularitza-lanak eginez, lizitaziora aurkeztu behar diren planoen antzekoak diren eta jatorri bera duten plano batzuen jabe dela.

86. Aldeek lehia-arauaren (sektore publikoko kontratuei buruzko legearen) urratzea proposamenetan sekretua gordetzeko betebeharra urratzean datza²³.

²² Ikusi 1999ko maiatzaren 4ko AGEa (Las Palmas), eta, ildo beretik, 2006ko urtarrilaren 11ko AGEa (Balearrak).

²³ Ikus, aurrekari gisa, 2005eko azaroaren 14ko ANEa (Eléctrica de Eriste SL).



GZPan frogatuta geratu da ARCAINEk (hots, “Kirolgunearen” lehiaketaren aurreko lanak egikaritzean aholkularitzako eta laguntza teknikoko lanak egin zituen, baldintza teknikoen agiriak landu zituen eta, hiru kideetako birekin, guztizkoaren % 55 hartzen duten esleipen-irizpideen ebaluazioan –Batzorde Ebaluatzailean– parte hartu zuen enpresak) AROS-VIUDA SAINZ ABEEak (hots, esleipendunak) “Kirolgunearen” lizitaziorako aurkeztutakoaren antzeko plano bat duela.

Frogatuta geratu da antzekotasun bisuala dagoela planoen artean. (HAMALAU GARREN GZPa) (1712. folioa).

Frogatuta geratu da “H\PROYECTES-CONCURSOS\LEIOA\” karaktereen kate berdina dagoela ARCAINEk 2008an KIROLGINTZAN sozietateari aurkeztutako eta AROS-VIUDA SAINZ ABEEak 2009an “Kirolgunearen” lehiaketarako aurkeztutako CDetako fitxategietan. (HAMALAU GARREN GZPa (1711. eta 1712. folioak).

Frogatuta geratu da izen bereko geruzak daudela ARCAINEk 2008an KIROLGINTZAN sozietateari aurkeztutako eta AROS-VIUDA SAINZ ABEEak 2009an “Kirolgunearen” lehiaketarako aurkeztutako CDetako fitxategietan. Izen bereko geruzak honako hauek dira (1487 bis-1487 quater folioak): - EST_PRO - EST_REF - FIP_PRO - FIP_VID - Z_AUX - Z_EDIFICACION - Z_PAV - Z_plaza - Z_SIMBOLOGIA - Z_TRA_251 - Z_TRA_253 - Z_TRA_254 - Z_TRA_255 - Z_TXT - Z_VEG - Z_VIAL). (HAMALAU GARREN GZPa (1711. folioa).

Frogatuta geratu da PUJOL ABEEak aurkeztutako proiektua egin zuen enpresak PROYECTES-CONCURSOS izeneko direktorio zahar bat zuela, eta direktorio horren barruan Leioako proiektu eta lanei buruzko fitxategiak gordetzen zituen azpidirektorio bat zegoela. (HAMALAU GARREN GZPa (1711. folioa).

Frogatuta geratu da ARCAIN enpresak 2008an KIROLGINTZAN enpresari eta UDALARI eman ziela. ZORTZIGARREN GZPa (1713. folioa).



87. Beraz, sekretua gordetzeko betebeharraren arau-haustea nabaria da, egiaztatuta geratu baita ARCAIN enpresak (2007. urtetik aurrera “Kirolgunearen” lehiaketaren baldintza teknikoen agiriak diseinatu dituenak) eskuetan izan duela, lehiaketa hasi baino ia urtebete lehenago, “Xref” izeneko fitxategian jasotako plano. Plano hori 2009. urtean AROS-VIUDA DE SAINZ ABEEak lizitaziorako eskaintza formulatzeko aurkeztu zuenaren berdina da, eta jatorri bera dute biek. Gainera, ARCAINek agiriak ireki aurretik (eta idatzi aurretik) eman zion informazio hori UDALARI (hots, azken aukerako botere esleitzaileri).

Enpresen jardunek erabat hautsi dute objektibotasunaren eta inpartzialtasunaren bermea “Kirolgunearen” lehiaketaren esleipenean, eta lizitazio publikoaren formularen funtsa urratu dute, hots, “partikularren berdintasuna zein deia egiten duenak, lehiaren bitartez, interes publikorako baldintzarik onenak lortzeko aukera bermatzea”²⁴.

88. AROSek dioenez, segidako hiru batzorde desberdin izendatu ziren eskaintzak ebaluatzeko, eta hirugarrenak ere (ARCAINen parte-hartzerik gabe) bere eskaintza puntuaziorik handienarekin balioetsi izanak frogatuko luke ARCAINek ez zuela eraginik izan esleipenean.

Hala ere, Lehiaren Euskal Kontseilu honen ustez, “Kirolgunearen” lehiaketaren irizpide teknikoen diseinuari lotutako aholkularitzalanean parte hartu zuen eta, hiru kideetako bi izendatuz, ebaluazio teknikoko batzordeetako bi lehenetan parte hartu zuen enpresak enpresa lizitzaile baten planoaren berri izateak urratu egiten du esleipenaren objektibotasunaren printzipioa.

Eta adierazpen horrek ez du indarrrik galtzen hirugarren balioespen-batzordeak (ARCAINen parte-hartzerik gabe) lehiaketa AROS-VIUDA SAINZ ABEEari behin betiko esleitu ziolako. Berdintasun-printzipioaren urratzea eta AROS-VIUDA SAINZ ABEEaren lehia-abantaila gertatzen da ARCAINek, “Kirolgunearen” lehiaketan parte

²⁴ Galiziako JAE, 2002ko ekainaren 12a.



hartzen hasi zenean, AROS-VIUDA SAINZ ABEEaren planoak zuelako. Hau da, prozesua akastuta dago hasieratik. Arrazoi beragatik, enpresek egin duten alegazioak (ARCAINEk egindako ebaluazioan AROSek aurkeztutako planoak puntuaziorik handiena lortu ez zuela, alegia) ez du zentzurik.

Beraz, ARCAIN eta AROS enpresen portaerak aztertu ondoren, Lehiaren Euskal Kontseilu honen ustez “Kirolgunearen” lehiaketan urratu egin da esleipenaren objektibotasuna eta lehia librea bermatzen dituen 30/2007 Legearen (sektore publikoko kontratuei buruzko legearen) lehia-araua.

89. AROSek adierazi du, halaber, ez duela sekretua gordetzeko betebeharra urratu, Lehiaren Euskal Kontseilu honek ez baitu frogatu lehiaketaren aurretik informazioa elkartrukatu zenik. Hala ere, Lehiaren Euskal Kontseilu honen ustez, prozeduran frogatuta geratu da AROSek PUJOLEkin kontratatatu zituenen eta AROS-VIUDA SAINZ ABEEak “Kirolgunearen” lehiaketan aurkeztutakoen berdinak ziren plano batzuk dituela ARCAINEk, eta UDALARI eta KIROLGINTZAN sozietateari eman dizkiola. Egiaztatuta geratu da, halaber, antzekotasunaren arrazoa “fitxategietako bat bestearen kopia izatea, fitxategietako batek bestetik zuzenean elementu batzuk hartu izana, edota prozesuaren uneren batean biak ekipo berean editatu izana” izan daitekeela (informatika-txosten teknikoa, ikus 60. paragrafoa).

90. Horrez gain, lehia-arauaren (sektore publikoko kontratuei buruzko legearen) haustea lehia desleiala da, Lehia Desleialari buruzko Legearen 2. paragrafoan bil daitekeena²⁵. Urratze horrek ondorio negatiboak izan ditu merkatuaren lehia-funtzionamenduan eta, zehazki, 9 lizitatzailleek “Kirolgunearen” lehiaketan behar zuten berdintasunean. Bi enpresen jarrera dela-eta, ez da bermatuta geratu lehiaketa eraginkortasun-irizpideetan oinarrituta erabaki denik.

²⁵ 15. artikulua. Arauak urratzea. Bidegabetzat hartzen da merkaturan legeak haustearen bidez lortutako lehia-abantaila bat baliatzea. Abantailak esanguratsua izan behar du. 2. Bidegabetzat hartuko da, halaber, lehia-jarduera arautzeko helburua duten arau juridikoen hauste hutsa.



“Kirolgunearen” lehiaketan lehia-jarduera antolatzen duten arauen haustea lehiaketaren behin betiko esleipenean islatu da, eta berehalako lehia-abantaila eman dio AROS-VIUDA DE SAINZ ABEEari. Baliatzea ezin da arau-haustetik bereizi, lehiaketan parte hartu duten beste 8 lizitatzailleekiko erlazioetan proiektatzen baita. Merkatuan lortzen den lehia-abantaila ezin da kuantifikatu, merkatua lizitazioak berak sortzen baitu. Bidegabetasuna, beraz, sektore publikoko kontratuei buruzko legea esleipena lortzeko asmoz haustean datza.

b. Lehiaren faltsutzea

91. Gertakariak Lehia Defendatzeko Legearen 3. artikulua eredu kokatzeko, beharrezkoa da enpresen jarduna kontuan hartuta lehiaren faltsutzea egiaztatzea eta faltsutze hori “merkatuaren funtzionamendu normala –gertakari ekonomikoen logikaren arabera– era esanguratsuan aldatzeko bezain garrantzitsua izatea”²⁶. 3. artikulua lizitazio bati dagokionez eraginpean hartutako merkatua, lehiaren arloko jurisprudenziari jarraiki, lizitazioarena bera da ezinbestez²⁷.

Faltsutzea gertatu da enpresek egindako ekintzen ondorioz enpresa bat abantailan geratu delako, eta ezin da ziurtatu hautaketa irizpide objektiboetan oinarrituta egin den.

Merkatuan sartzeko aukera eta, beraz, lehia, lizitazioaren unean baino ez da agertzen. Beraz, prozesuaren prestaketak (agirien definizioa barne) eta esleipen-faseak (eskaintzak ebaluatzeko prozesua barne) ahalbidetzen dute lehia sortzeko parametroak ezartzea²⁸.

Aztergai dugun kasuan, ARCAIN eta AROS enpresen jardunbideak merkatu horren inguruko lehiaren eragina izan dezakeen aztertu behar da.

²⁶ Lehia Defendatzeko Auzitegiaren 2002ko apirilaren 30eko Ebazpena (LDAE), ETI/Higiezinaren Jabetzako Agenteen Elkargoak; esp.: 519/01.

²⁷ 2005eko azaroaren 14ko ANE, Eléctica de ERISTE SL.

²⁸ Ikus Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiaren Ebazpena; esp.: 1/2011, ERREGAI HORNIDURAREN LEHIAKETA.



Azpimarratu beharra dago proiektuaren ezaugarri bereziak direla-eta justifikatu duela LEIOA KIROLAK enpresak obra-zuzendaritzako eta egikaritzeko baterako lizitazio-lehiaketa bat irekitzeko aukera (legeak proiektuaren konplexutasunari eta garrantziari lotutako zirkunstantzia jakin batzuetan baino baimentzen ez duena). Zirkunstantzia horrek muga handia sortzen du lehiaketan parte hartzeko ahalmena duten enpresei dagokienez, eta, beraz, garrantzi handiagoa hartzen du enpresen arteko lehiarekiko errespetuak.

92. Merkatu horren inguruko lehiari eragin dela ondorioztatzen eraman gaituzten elementuen artean, bi mota bereiz daitezke: lizitazioa prestatu zen aldirian (lizitazioan bertan) gertatu zirenak eta esleipen-fasean (enpresa esleipenduna behin betiko finkatu arte) gertatu zirenak.

Lizitazioaren prestaketa-fasean, kontuan izan behar da ARCAINEk antzeko plano bat zuela eta baldintza teknikoaren agiriak prestatzen ari zirenean “Kirolgunearen” lehiaketan lizitatuak ziren enpresetako batek zuenaren jatorri berekoa zela. Hori dela-eta, LEIOA KIROLAK enpresaren aholkulari kualifikatua den neurrian, esleipen-irizpideetan eta irizpide bakoitzaren haztapenean eragina izan dezake.

Izan ere, LEIOA KIROLAK enpresak onartutako esleipen-irizpideek puntu asko ematen dizkiete honako alderdi hauei, kalkulua formula matematikoetan oinarritu gabe: puntuaren % 45 aurkeztutako proposamen teknikoari, eta % 10 obraren azterketa eta ezagutzari; gainerakoak prezioa, proiektua idazteko epea eta obra egikaritzeko epea dira. Proposamenak aztertzean, hain zuzen ere kategoria horietan ager daitezke subjektibotasun-elementu gehiago, eta kategoria horiek, batera, azken puntuazioaren % 55 dira.

93. 2009. urtean, “Kirolgunearen” lizitazioa argitaratu zen.

9 ABEE aurkeztu dira lehiaketan, eta, beraz, lizitazioaren xede den prestazioa egiteko gaitasuna egiaztatu dute. Gainera, beren eskaintzak aurkeztuz merkatuan sartzeko borondatea dutela adierazi dute 9 ABEE horiek.



Beraz, atomizatu gabe dagoen merkatua da, eta sekretua gordetzeko betebeharra duen ABEEarekin lehian diharduten enpresa guztiei eragiten zaie kaltea. Gainera, lizitazioa denez gero, lehia ez da merkatuan egiaztatzen; merkatuak egiaztatzen du. Hortaz, lizitazioaren unean egiten den kalteak kontratuaren iraupen osoan du eragina.

94. Ebaluazio-fasean, bi elementu hartu behar dira kontuan.

Lehenik eta behin, ARCAINEk lehen bi ebaluazio-batzordeetan parte hartu zuela. LEIOA KIROLAKen ustez, “ez zen guztiz bermatuta egon behin-behineko esleipena erabakitzeko egindako balioespenaren inpartzialtasuna eta gardentasuna”, eta emaitza baliogabetuta geratu da bi kasuetan (salatzailearen errekurtsio banaren ondorioz).

Lehen esleipenaren azterketatik ondoriozta daitekeenez, balioespen teknikoa osatzen duten bost elementuek ezarri dituzte aldeak enpresa lizitatzailerik lortutako puntuazioan (ARCAINEk hiru botoetatik bi zituen ebaluazio-batzordean). Enpresa lizitatzailerik guztiek gainerako irizpideetan (prezioa, idazteko epea eta egikaritzeko epea) lortutako puntuazioa ia berdina izan da, eta, beraz, praktikan, ARCAINEk eragin erabakigarria izan du ebaluazioan.

Egia da hirugarren ebaluazio-batzorde batek ere AROS-VIUDA DE SAINZ ABEEari eman diola puntuaziorik handiena, baina, ebaluazioaren aurretik agertu diren elementu guztiek ondorengo ebaluazioan parte hartu duten enpresei marjina estua utz ziezaieketela kontuan hartuta, horrek ez du indarririk ondorioak ahultzeko.

Bigarren elementua honako hau da: ABEE guztien artean bat hautatzean, merkatu garrantzitsu bat hartuko duen enpresa bakarra hautatzen da, eta lehiakideak merkatutik kanpo uzten dira. Hautaketa hori kontratuei buruzko araudia eta lehiari buruzko araudia urratu gabe egiten bada, ez dago gaitzesterik, enpresarik (edo ABEErik) eraginkorrenak hartzen baitu merkatua.



Osterantzean, lehia urratzen dela nabaria da, enpresa batek, legez kanpoko jardunbide batez baliatuta, lehiakideak merkatutik kanpo uzten dituen lehia-abantaila bat baitu.

c. Interes publikoaren gaineko eragina

95. Lehia Desleialari buruzko Legeak ondasun juridiko babestutzat hartzen du lehia ekonomikoaren erakunde-babesa, eta bat dator horretan Lehia Defendatzeko Legearekin. Gainera, lehiakideen eta kontsumitzaileen interesak ez ezik, Estatuak lehia askeari eusteko duen interes publikoa zaintzen du²⁹. Ondoriozta daitekeenez, Lehia Defendatzeko Legearean 3. artikulua aplikatzeko interes publiko garrantzitsua lehia defendatzeko legeriaren helburu politikoetan zehaztutakoa da, hain zuzen ere³⁰.

96. ARCAINEk dioenez, Lehia Defendatzeko Legearen 3. artikulua babesten duen interesa ezin da parekatu eta ez dator bat kontratu publiko bat esleitzeko edozein prozesutan dagoen interes publikoarekin.

Lehiaren Euskal Kontseilu hau ez dator bat argudio horrekin, eskaintzarik merkeena hautatzen dela ziurtatzea eta interes publikoa lortzeko lehia askea zaintzea baita sektore publikoko kontratuei buruzko legearen xedea. 2007ko Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen (gaur SPKLaren Testu Bategina) 1. artikulua.

Interes publikoa ikuspuntu kuantitatibo batetik ulertuta, gogorarazi beharra dago “Kirolgunearen” lehiaketak 50 milioi eurotik gorako balioa duela. Baina, gainera, ikuspuntu kualitatibotik ulertuta, gogorarazi beharra dago lizitazio publiko baten aurrean gaudela, eta ARCAINEk “Kirolgunearen” lehiaketako agiriak prestatu aurretik AROS-VIUDA SAINZ ABEEaren planoaren berri izateak, adierazitako lehiaketan, nahasmendu larria eragiten duela tratu-

²⁹Lehia Desleialari buruzko Legearen Hitzazurreko II. Paragrafoa, in fine.

³⁰Ikus 1999ko ekainaren 7ko LDAEa, *Makro*.



berdintasunaren eta lehia askearen printzipioan³¹. Kontuan izan behar dugu sektore publikoko kontratuei buruzko legean jasotako sekretua gordetzeko betebeharra hautsi izanak parte hartzen zuten enpresen arteko berdintasuna bermatu ezin den lehiaketa batean lizitatzeko aukera eman diola AROS-VIUDA SAINZ ABEEari. Berriz ere lehiaren arloko jurisprudentzia kontuan hartuta, ondoriozta dezakegu “interes publikoaren gaineko eragina ez dagoela arau-haustearen edo hori egiten den merkatuaren tamainari lotuta. Aitzitik, lehia askea faltsutzeak dakarren lehia desleialaren tamaina hartu behar da kontuan” (2005eko azaroaren 14ko ANE).

Hori guztia dela-eta, Kontseilu honek ondorioztatu du interes publikoa ziurtatzeko beharrezkoa dela lehia-prozesuan eskaintzarik merkeena egiteko gaitasuna duten enpresak lizitazio publikoaren esleipendunak izatea (SPKLaren 1. artikulua).

d. Aldeen alegazioak kalifikazio berriaren aurrean

97. Kalifikazio berriaren aurrean, aldeek hainbat alegazio aurkeztu dituzte.

98. VIUDA DE SAINZ enpresak adierazi du kalifikazio berriak babesgabetasuna sor dezakeela.

Lehiaren Euskal Kontseilu honek Auzitegi Gorenaren doktrinari heltzen dio jokabidearen kalifikazio berriaren ondoriozko babesgabetasunari dagokionez:

“Lehia Defendatzeko Legeak araututako zehapen-prozedurari dagokionez, Auzitegi Gorenaren 2007ko otsailaren 27ko epaiak (7130/2005 errekurtsioa) honako hau dio: Adierazi beharra dago Sala honek 2006ko otsailaren 21eko epaian (2006, 795 JB) (3754/2003 RC) azaldutako doktrinaren arabera zehapen-prozedura administratiboek ez dituztela prozesu penaletan beharrezkoak diren

³¹ Ikus, ildo horretan, 1992ko uztailaren 8ko LDAEa (Aceites), Auzitegi Nazionalak 1997ko martxoaren 24ko Epaiaren bidez berretsia. “Faltsutzen duten ekintzek edo jokabideek edota lehia askearen aurkakoek eragin negatiboa dute interes publikoan, merkatu-ekonomiaren elementu horrek merkatu horren behar bezalako funtzionamendurako beharrezko elementu gisa parte hartu behar baitu”.



berme zorrotz guztiak. Adibidez, akusazio-printzipioaren ondorioek ez dute indarrik beren osotasunean, ezta frogen ekarpenari eta gertakarien kalifikazioari dagokienez ere. Zehazki, Lehia Defendatzeko Auzitegiak, bere legeria espezifikuari lotutako administrazio-organo gisa, froga-material berria txerta dadin erabaki dezake, eta jarritako materiala interesdunarentzat instruktoreak proposatutakoa baino okerragoa dela balioetsi. 16/1989 Legearen (LBK 1989, 1591) 43. artikulua aukera ematen dio bere jakintzapean jarritako gaia beharbada Zerbitzuak behar bezala balioztatu ez duela eta beste kalifikazio bat izan zezakeela ezartzeko, eta aldeei alde zuzenetik entzun ondoren, beste kalifikazio hori ematea ebatz dezake”.

Bestalde, Auzitegi Nazionalak dioenez, “Lehiaren Zuzenbidearen eremuan, babesgabetasun-arrasto oro saihestera zuzendutako agindu bat dugu”. “Ildo horretan (...), Lehia Defendatzeko Legeak (51.4 artikuluan), defentsa-eskubidea errespetatuz eta Lehiaren Batzorde Nazionalak kalifikazioa alda dezakeela aurreikusita, kalifikazio berria interesdunen mende jartzea aurreikusten du, bidezkoz hartzen dutena alegatzeko (...)”. (Auzitegi Nazionalaren 2012ko otsailaren 22ko Epaia).

99. AROsek adierazi duenez, kalifikazio berri horren aurkako alegazioak formulatzeko finkatutako 15 eguneko epeak ere babesgabetasuna sortzen dio. Ildo horretan, planteatu beharra dago Lehia Defendatzeko Legearen 51.4 artikulua berak 15 eguneko epea ezartzen duela izapide hori egiteko. Gainera, AROsek eskatuta zehazki, Lehiaren Euskal Kontseilu honek Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/92 Legeak horretarako sortutako epearen luzapena eman zion.

Horri guztiari jarraiki, Lehiaren Euskal Kontseilu honek, Lehia Defendatzeko Legearen testua eta horren jurisprudentzia-interpretazioa kontuan hartuta, aipatutako alegazioa baztertu behar du.



100. AROSek dioenez, kalifikazio berriari “motibazio falta zaio. Izan ere, oso azaletik aztertzen du akatsekin egotzitako eredu berriaren elementuen aplikagarritasuna, arrazoi zehatzak ezarri gabe”.

Kalifikazio berriari buruzko Erabakia eredu berriari eta kasuan aplikatzeko aukera aurreikustera bultzatzen duten zirkunstantzietan lotuta dagoen neurrian, alegazio hau ezetsi egin behar da.

e. Ondorioa

101. Arestian esandako guztiaz ondoriozta daitekeenez, ARCAINen eta AROS-VIUDA DE SAINZ ABEEaren jokabideek sektore publikoko kontratuei buruzko legearen 129.2 artikulua hautsi dute, sekretua gordetzeko betebeharra urratu izanagatik. Urratze horrek Lehia Defendatzeko Legearen 15.2 artikulua urratzea dakar, “lehia-jarduera arautzeko helburua duten arau juridikoak hausten baititu”.

Lehia desleial horrek lehia larriki kaltetzen duela eta interes publikoko inplikazioak egiaztatuta dituela kontuan hartuta, Lehia Defendatzeko Legearen 3. artikulua hausten da.

15/2007 Legearen 62.3.c) artikuluari jarraiki, arau-hauste larritzat hartzen da “bidegabeko ekintzen bidez lehia askea faltsutzea, Legearen 3. artikuluan ezarritako baldintzetan”.

Hori dela-eta, AROS, VIUDA DE SAINZ eta ARCAIN enpresek Lehia Defendatzeko Legearen 3. artikulua arau-hauste larria egin dute.

C. Arau-haustek.

102. Zehapen-prozedura honetan, aztergai dugun zehapen-prozedurako instruktoreak egindako ebazpen-proposamena Lehiaren Euskal Kontseilu honi igorri zitzaion, azter zezan. Ebazpen-proposamen horren kalifikazio juridikoan adierazten duenez, zehapen-prozeduran aztertutako jokabideak Lehia



Defendatzeko 15/2007 Legearen 1.1 artikuluan tipifikatutako jardunbide debekatuan sartzen dira.

2013ko martxoaren 27an, Lehiaren Euskal Kontseilu honek, Lehia Defendatzeko 15/2007 Legearen 51.4 artikulua emandako ahalmena baliatuta, ebazpen-proposamenean azaldutako gertakariak berriz kalifikatu zituen, erakutsitako jokabideak, aipatutako Legearen 1.1 artikulua ez ezik, 3. artikulua ere urra zezakeelakoan.

Horri dagokionez, Auzitegi Gorenak adierazi du gertakari berak bi arau-hauste bil ditzakeela.

ildo horretan, zehapen-prozedura irekitzea eragin duten gertakariak Lehia Defendatzeko Legea urra dezakete, alde batetik 1. artikulua kolusio-jokabide gisa, eta, bestetik, lehia askearen faltsutze gisa, interes publikoa kaltetu duten bidegabeko ekintzen bidez (3. artikulua).

Adierazitako aginduak aztertzean, garbi ikusten da bi urratze biltzen direla. Bi agindu horiek judizialki babestutako ondasunak bat datoz, 15/2007 Legean juridikoki babestutako ondasun bakarra baitago: lehia zintzoa eta askea.

Hori dela-eta, frogatutako gertakariak bi arau-hauste mota dakartzatela kontuan hartu gabe, eta gertakariak batasun bat osatzen dutenez gero, Lehiaren Euskal Kontseilu honek, non bis in ídem printzipioaren urratzea saihesteko, zehapen bakarra ezarriko du.³²

6. Inplikazioa arau-hausteetan

A. PUJOL

103. Espedientean frogatuta geratu diren gertakarietatik ezin da ondorioztatu PUJOL enpresak Lehia Defendatzeko Legearen 1.1

³² Auzitegi Gorena, 1999ko ekainaren 9a



eta 3. artikuluen arau-haustea dakarten jokabideetan parte hartu duenik.

Hori dela-eta, Lehiaren Euskal Kontseilu honek Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuaren ebazpen-proposamena baietsi behar du PUJOL enpresari dagokionez, eta ez du aitortutako arau-hausteen erantzuletzat hartuko.

B. VIUDA DE SAINZ

104. Espedientean frogatuta geratu diren gertakarietatik ezin da ondorioztatu VIUDA DE SAINZ enpresak Lehia Defendatzeko Legearen 1.1 artikulua arau-haustea dakarten eta frogatutaz hartu diren jokabideetan parte hartu duenik.

Lehia Defendatzeko Legearen 3. artikulua arau-haustea dakarren jokabidean izandako parte-hartzeari dagokionez, VIUDA DE SAINZ enpresak “Kirolgunearen” lizitazioaren esleipenduna izan zen ABEEkoa bada ere, Lehiaren Euskal Kontseilu honek kontuan hartu behar du, egiaztatuta geratu denez, gutxienez 2008ko abuztutik ARCAINEK kirolgunearen plana duela, eta AROS eta VIUDA DE SAINZ enpresen artean ABEEa eratzeko konpromisoa 2009ko azaroaren 9an hartu zela. Hori dela-eta, Lehiaren Euskal Kontseilu honek uste du sekretua gordetzeko betebeharraren urratzea (Lehia Defendatzeko Legearen 3. artikulua arau-haustea) ez dela behar bezain egiaztatuta geratu.

C. AROS eta ARCAIN

a. Arau-haustek. Tipikotasuna eta antijuridikotasuna.

105. Aitortutako eta ebazpen honetan frogatutako gertakarietatik eta horiek izan duten kalifikazio juridikotik ondoriozta daitekeenez, AROS eta ARCAIN enpresek lehia murriztu duten jardunak egin dituzte (Lehia Defendatzeko Legearen 1.1 artikulua arau-haustea dakarren informazio-elkartrukea, hain zuzen ere).



Aitortutako eta ebazpen honetan frogatutako gertakarietatik eta horiek izan duten kalifikazio juridikotik ondoriozta daitekeenez, AROS eta ARCAIN enpresek lehia murriztu duten jardunak egin dituzte; hain zuzen ere, Lehia Defendatzeko Legearen 3. artikulua arau-haustea dakarte jardun horiek, sektore publikoko kontratuei buruzko legearen 129. artikuluan jasotako sekretua gordetzeko betebeharra hautsi baitute. Hori dela-eta, Lehia Desleialari buruzko Legearen 15.2 artikulua aplikatu behar da. Lehia desleiala, lehiakideenganako kalte larria eta jardunak kaltetutako interes publikoa egiaztatuta geratu direnez gero, jardun hori Lehia Defendatzeko Legearen 3. artikulua arau-haustea da.

Jokabideak tipikoak eta antijuridikoak direla ulertzen da.

b. Erruduntasuna

106. Konstituzio Auzitegiaren eta Auzitegi Gorenaren jurisprudentziari jarraiki –Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak ere jurisprudentzia hori jasotzen du 2011ko azaroaren 14ko 761/2011 epaian eta 2012ko otsailaren 6ko 73/2012 epaian–, administrazio-erantzukizunaren eremuan ez da nahikoa jokabidea tipikoa eta antijuridikoa izatea; horrez gain, beharrezkoa da errudun izatea. Erruduntasuna saihestezina da zehapen-zuzenbidea aplikatzean, eta jokabidea espedientatuei egozteko modukoa izatea eskatzen du (dolo gisa zein zuhurtziagabekeria gisa), hau da, subjektuak nahita jardutea edota bere ekintzak lehia askearen urratzea eragin dezakeela edo eragiten duela konturatu gabe jardutea (eskatzen zitzaion eginbidea alde batera utzi izanagatik).

Illo horretan, Auzitegi Gorenak 2010eko uztailaren 6ko Epaian ezarri duenez, “honako hau hartu behar da erruduntasuntzat: egitez edo ez-egitez gertakari tipiko eta antijuridiko bat egin duenari zuzendutako gaitzespenezko judizio pertsonala; horrek esan nahi du eta eskatzen du egilea legez kontrako jokabidea dakarren ekintzaren edo ez-egitearen eragilea izatea (egile, konplize edo estaltzaile gisa); egileari egotzi ahal izatea, haren jarduteko gaitasuna aldatzen duen inguruabarrik gabe; eta egile hori errudun



izatea, hau da, jakinaren gainean eta nahita aritu izana, intentzizko moduan edota erruzko moduan”.

Epaiak gaineratzen duenez, “Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak ez du espezifikoki betekizun hori kontuan hartzen arau-hauste administratiboak egin izana finkatzeko, baina badirudi bi puntu zehatzetan kontuan hartzen dituela arau-haustetzat har daitekeen jokabidearen alderdi subjektiboak. Alde batetik, 130.1 artikuluan (“in fine”) arau-hausteen erantzuleak “ez-betetze soilagatik” izan daitezkeela dioenean, erruduntasunaren betekizun subjektiboa eskatzen ez dela, hau da, erruduntasunik gabeko erantzukizuna egon daitekeela ondoriozta daitekeela dirudi. Bestalde, 131.3.a) artikulua zehapenen graduazio-irizpideen artean “intentzionalitatea” aipatzen duenean, beharbada erruduntasuna baztertzeko du arau-haustearen elementu erabakigarri gisa. Hala ere, horren eskakizunaren inguruko zalantzarik ez dago zehapen-arloko administrazio-zuzenbidearen eremuan. Horrela, beraz, funtsezko betekizuna da arau-hauste administratibo bat gertatzeko. Horixe onartu du Auzitegi Gorenak zein Konstituzio Auzitegiak behin eta berriz eman duten jurisprudentziak, eta horren eskakizuna finkatu du, zalantzarik gabe. Horren ondorioz, subjektu arau-haustearen jokabidean erruduntasuna hautemateko eskakizuna segurtasun juridikoaren eta legezotasunaren printzipio konstituzionaletatik sortzen da zuzenean, mota orotako zehapen-ahalmenak baliatzeari dagokionez. Erruduntasun-printzipioa oinarrizko elementua da pertsona baten jokabidea zehagarriztat jotzeko orduan, hau da, funtsezko elementua da urratze administratibo guztietan; printzipioak, arau-haustea eragin duen jokabidea aztertzeke garaian ez ezik, inguruabar astungarrietan ere badihardu”.

Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren epai horiei jarraiki, “erru” elementua errugabetasun-presuntzioaren eremu funtzionalaren barruan dago, eta presuntzio hori zeharkako frogarekin edo zantzu-frogarekin desegin daiteke. Froga horrek, zehazki, berez erruduntasuna ezartzen dutenak ez diren, baina



logikaren arabera erruduntasuna ondorioztatzera eramaten duten gertakari batzuen ziurtasuna erakusten du.

107. AROS eta ARCAIN enpresen informazio-elkartrukea jakinaren gainean eta borondatez egindako jokabidea izan da, lizitazioak sortutako merkatua nahastera eta lehian nahasmendu larria eragitera zuzendua.

108. Lehia Defendatzeko Legearen 3. artikulua eredu (Lehia Desleialari buruzko Legearen 15.2 artikulua eta sektore publikoko kontratuei buruzko legearen 129. artikulua dagokienez) sar daitezkeen gertakariak AROS eta ARCAIN enpresek egin dituzte.

AROS enpresak PUJOL enpresari kontratatutako eta geroago AROS-VIUDA DE SAINZ ABEEak “Kirolgunearen” lizitazioan aurkeztutako planoaren inguruko sekretua gordetzeko betebeharra urratu dute bi enpresek. Proposamenen sekretua gordetzeko betebeharraren urratzea jakinaren gainean eta borondatez baino ezin da egin.

Hori dela-eta, Lehiaren Euskal Kontseilu honek ondorioztatu du AROS eta ARCAIN enpresen erruduntasuna egiaztatuta geratu dela, 1.1 artikulua zein 3. artikulua dagokionez.

c. Preskripzioa

109. Arestian adierazi dugunez, egotzitako arau-haustek larriak dira (Lehia Defendatzeko Legearen 62. artikulua).

Lehia Defendatzeko Legearen 68. artikulua ezartzen du arau-hauste larriak bi urtean preskribatzen direla. Ezartzen du, gainera, preskribatzeko epea arau-haustea egin den egunetik hasiko da zenbatzen, edota, arau-hauste jarraituen kasuan, horiek egiteari utzi zaionetik. Hirugarren paragrafoan ezartzen denez, preskripzioa eten



egiten da Administrazioak Legea betetzeko egindako edozein ekintzaren ondorioz, betiere interesdunaren ezagutza formalarekin.

110. ARCAIN enpresari dagokionez, erregulazio hau eta ebazpenaren ondoriozko datuak kontuan hartuta, 1.1 artikulua arau-haustea lizitazioaren behin betiko esleipenaren egunera arte iristen dela ulertu behar da, une horretan geratu baitzen agerian lehiaren aurkako kaltea. Egun hori 2011ko otsailaren 11 izan zen, eta, beraz, hasiera-data 2011ko otsailaren 12a. Preskripzioa eten egin zen ARCAINEk bere kontrako informazio erreserbatua zegoela zioen jakinarazpena jaso zuen egunean, hau da, 2011ko uztailaren 19an (1467. folioa). Beraz, ondorioztatu beharra dago arau-hauste hori ez dela preskribatu ARCAINen kasuan.

111. ARCAIN enpresari dagokionez, erregulazio hau eta ebazpenaren ondoriozko datuak kontuan hartuta, 3 artikulua arau-haustea lizitazioaren behin betiko esleipenaren egunera arte iristen dela ulertu behar da, une horretan geratu baitzen agerian lehiaren aurkako kaltea. Egun hori 2011ko otsailaren 11 izan zen, eta, beraz, hasiera-data 2011ko otsailaren 12a. Preskripzioa eten egin zen ARCAINEk bere kontrako informazio erreserbatua zegoela zioen jakinarazpena jaso zuen egunean, hau da, 2011ko uztailaren 19an (1467. folioa). Beraz, ondorioztatu beharra dago arau-hauste hori ez dela preskribatu ARCAINen kasuan.

112. AROS enpresari dagokionez, erregulazio hau eta ebazpenaren ondoriozko datuak kontuan hartuta, 1.1 artikulua arau-haustea lizitazioaren behin betiko esleipenaren egunera arte iristen dela ulertu behar da, une horretan geratu baitzen agerian lehiaren aurkako kaltea. Egun hori 2011ko otsailaren 11 izan zen, eta, beraz, hasiera-data 2011ko otsailaren 12a. Preskripzioa eten egin zen AROSEk bere kontrako informazio erreserbatua zegoela zioen jakinarazpena jaso zuen egunean, hau da, 2011ko irailaren 26an (1507. folioa). Beraz, ondorioztatu beharra dago arau-hauste hori ez dela preskribatu ARCAINen kasuan.



113. AROS enpresari dagokionez, erregulazio hau eta ebazpenaren ondoriozko datuak kontuan hartuta, 3 artikulua arau-haustea lizitazioaren behin betiko esleipenaren egunera arte iristen dela ulertu behar da, une horretan geratu baitzen agerian lehiaren aurkako kaltea. Egun hori 2011ko otsailaren 11 izan zen, eta, beraz, hasiera-data 2011ko otsailaren 12a. Preskripzioa eten egin zen AROsek bere kontrako informazio erreserbatua zegoela zioen jakinarazpena jaso zuen egunean, hau da, 2011ko irailaren 26an (1507. folioa). Beraz, ondorioztatu beharra dago arau-hauste hori ez dela preskribatu ARCAINen kasuan.

d. Zehapenaren zenbatekoa

114. Egiaztatuta geratu da AROS eta ARCAIN enpresek bi arau-hauste larri, tipiko, antijuridiko eta errudunetan parte hartu dutela, eta erantzukizuna ez dela preskribatu.

Zehapenak kalkulatzeko, arau-haustearen larritasuna hartzen da kontuan. Lehia Defendatzeko Legearen 63.1.b artikulua ezartzen duenez, arau-hauste larrien kasuan, arau-haustea egin duen enpresak isuna ezartzen denaren aurreko ekitaldian zuen guztizko negozio-bolumenaren % 5eko zehapena ezar daiteke.

Bi enpresek egindakoak bi arau-hauste badira ere, zehapen bakarria ezarri behar da, non bis in idem printzipioa urra ez dadin.

Hori guztia dela-eta, Lehiaren Euskal Kontseilu honen ustez honela kalkulatu behar da zehapena:

- ARCAINen kasuan, lizitazio publikoan Administrazioaren kanpoko aholkulari gisa egindako lana eta lehian eragiteko duen ahalmena kontuan hartuta, Lehiaren Euskal Kontseilu honen ustez astungarri handi bat dago.



Arestian adierazitako irizpideak haztatu ondoren, Lehiaren Euskal Kontseilu honek 89.000 euroko isuna ezarri du.

- AROSen kasuan, arestian adierazitako irizpideak haztatu ondoren, Lehiaren Euskal Kontseilu honek 45.000 euroko isuna ezarri du.

e. Beste neurri batzuk

115. Lehia Defendatzeko Legearen 53.2.c artikulua ezartzen duenez, Kontseiluak “interes publikoaren aurkako jardunbide debekatuen ondorioak ezabatzeko Agindua” sartu ahal izango du bere ebazpenetan.

Egiaztatuta geratu da AROS eta ARCAIN enpresek 2011n esleitutako “Kirolgunearen” lizitazioari dagokionez egindako arau-haustea. 2012ko urriaren 3an, esleitutako kontratua elkarren arteko adostasunez suntsiarazteko espedientea irekitzeko erabakia hartu zuen LEIOA KIROLAK enpresako presidentek.

Lehiaren Euskal Kontseilu honek, egiaztatuta geratu den interes publikoaren gaineko kaltea kontuan hartuta, arau-hausleek kalte-galerengatiko kalte-ordaina edo konpentsazioa jasotzeak lehiaren gaineko eragina iraunaraziko lukeela uste du.

Hori dela-eta, Lehiaren Euskal Kontseilu honek interes publikoaren aurkako jardunbide debekatuen ondorioen ezabatzea agindu behar du, eta, horretarako, arau-hausleei kalte-galerengatiko kalte-ordain edo konpentsazio oro ordaintzea debekatu, edo ordaindutakoak berreskuratuko ditu.



IV. EBATZI DU

LEHENENGOA.- Espediente honetan Lehia Defendatzeko Legearen 1.1 artikulua arau-hauste bat egiaztatu dela adieraztea; erantzulea ARCAIN INGENIERIA y ARQUITECTURA, SL enpresa da.

BIGARRENA.- Espediente honetan Lehia Defendatzeko Legearen 3. artikulua arau-hauste bat egiaztatu dela adieraztea; erantzulea ARCAIN INGENIERIA y ARQUITECTURA, SL enpresa da.

HIRUGARRENA.- Espediente honetan Lehia Defendatzeko Legearen 1.1 artikulua arau-hauste bat egiaztatu dela adieraztea; erantzulea AROS ESTUDIO DE ARQUITECTURA, SA enpresa da.

LAUGARRENA.- Espediente honetan Lehia Defendatzeko Legearen 3. artikulua arau-hauste bat egiaztatu dela adieraztea; erantzulea AROS ESTUDIO DE ARQUITECTURA, SA enpresa da.

BOSGARRENA.- ARCAIN INGENIERIA y ARQUITECTURA, SL enpresari 89.000 €-ko isuna ezartzea.

SEIGARRENA.- AROS ESTUDIO DE ARQUITECTURA, SA enpresari 45.000 €-ko isuna ezartzea.

ZAZPIGARRENA.- LEIOA KIROLAK. SAU enpresari interes publikoaren aurkako jokabide debekatuen ondorioak ezaba ditzan agintzea. Beraz, arau-hausleei ez die ordainduko “Kirolgunearen” kontratua suntsiarazi izanaren ondoriozko kalte-galerengatik ezein kalte-ordain edo konpentsazio, eta, hala badagokio, kontzeptu horrengatik dagoeneko ordainduta dauden zenbatekoak berreskuratuko ditu.



ZORTZIGARRENA.- AROS ESTUDIO DE ARQUITECTURA, SA, ARCAIN INGENIERIA y ARQUITECTURA, SL eta LEIOA KIROLAK, SAU enpresek ebazpen honetan agindutakoaren betearazpena justifikatuko diote Lehiaren Euskal Agintaritza honen Ikerketa Zuzendaritzari.

BEDERATZIGARRENA.- Lehiaren Euskal Agintaritza honen Ikerketa Zuzendaritzari Ebazpen hau osorik betetzen dela zain dezan eskatzea.

HAMARGARRENA.- Espediente honetan Lehia Defendatzeko Legearen 1.1 artikulua eta 3. artikulua arau-haustea PUJOL ARQUITECTURA, SLP enpresaren jardunari dagokionez egiaztatu ez dela adieraztea.

HAMAIKAGARRENA.- Espediente honetan Lehia Defendatzeko Legearen 1.1 artikulua eta 3. artikulua arau-haustea EXCAVACIONES VIUDA DE SAINZ, SA enpresaren jardunari dagokionez egiaztatu ez dela adieraztea.

Lehiaren Euskal Agintaritzaren Ikerketa Zuzendaritzari Ebazpen honen berri eman beharko zaio, eta interesdun guztiei jakinarazi beharko zaie Ebazpenak administrazio-bideari amaiera ematen diola eta administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango dutela Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Salan, jakinarazi eta bi hilabeteko epean.

**PRESIDENTE
MARIA PILAR CANEDO ARRILLAGA**

**SECRETARIO
IBON ALVAREZ CASADO**

**VOCAL
NATIVIDAD GOÑI URRIZA**

**VOCAL
RAFAEL ITURRIAGA NIEVA**